



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko irailaren 5a

60 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua (4. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmen proiektua, Soldadutzaren ordezkoko Zerbitzuari buruzkoa (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—“Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” ereduaz ezartzeari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (13. or.).

—DBH, IEE, LH eta UBiko ikastetxeetan goizeko jarduna bakarrik egiteko baimenari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (13. or.).

—D ereduaz dela-eta, ikastetxe publiko eta pribatuetan sortu diren tirabiren ondorioz Nafarroako Ikastolen Elkarteak aurkeztu dituen salaketei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (14. or.).

—Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko “Gas Navarra”rekin izenpeturiko hitzarmenari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).

—Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).

—Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).

—Nafarroako Ospitaleko D pabilioia (kardiologia) birmoldatzeari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).

—Osasun Departamentuak ezarri dituen oxigenoterapia-hitzarmenei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).

- Construcciones Corellanas S.L. enpresari obrak esleitzeari buruzko galdera, «Eusko Alkartasuna-Askotarik» Parlamentari Taldeak egina (17. or.).
- Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (18. or.).
- Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- Lantzeko emaileen etxearen egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- Uxueko elizako obren egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).
- Aralarko Mikel deunaren obren egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (20. or.).
- Emakumearen Instituaaren aholkularitza juridikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (21. or.).
- Irakaskuntzaz besteko zereginetan ari diren irakasleei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (21. or.).
- 1996-1997 ikasturtean sare publikoan diren irakasleei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (22. or.).
- Diruz lagundutako eta itunpeko ikastetxeetan dagoen laguntzeko irakasleen guztizko kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (22. or.).
- Irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatuaren kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (23. or.).
- Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (23. or.).
- 1997rako lan-eskaintza publikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (24. or.).
- Europako Batasuneko estatu partaideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko laguntzen deialdiari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (24. or.).
- Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina (25. or.).
- Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruzko galdera, Fermín Cíaurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- “Ingurugiro Hezkuntzarako Programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten Beste Jardueretarako Dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
- “Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
- “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- “Naturguneak babesteko Hitzarmena” deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako zonarako Nafarroako Gobernuak dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).

#### G SAILA:

##### **Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (30. or.).

—Nafarroako Gobernuak 1997ko maiatzean Nafarroako Parlamentura igorritako Erabakiak eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena (36. or.).

**H SAILA:**

**Bestelako Textu Arau Emaileak:**

—Energia Aurrezteari buruzko Nafarroako Programa (41. or.).

—95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (41. or.).

**I SAILA:**

**Parlamentuko Jarduera:**

—1997ko uztailean eta abuztuan egindako bilerak (43. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko uztailean eta abuztuan sartu diren agirien zerrenda (43. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko ekainaren 23an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1997ko irailaren 24ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua**

### ZIOEN ADIERAZPENEA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 47. artikuluan xedatzen du Nafarroak eskumen osoa duela irakaskuntza arloa arautu eta administratzeko, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, arlo honetako konstituzio aginduetan eta horiek garatzen dituzten lege organikoetan ezarritakoa galarazi gabe eta, ikasketak eta lanbide tituluak lortu eta baliokidetzeko baldintzak arautzeari buruz, Estatuak dituen eskumenak eta agindu horiek guztiak betearazi eta bermatzeko Estatuaren goi-ikuskapena ukitu gabe.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, bestalde, hauxe xedatzen du 34. artikuluan: “Autonomi elkarte guztietan, Eskola Kontseilu bana eratuko da, lurralde eremu horretan arituko dena. Horren osakera eta funtzionamendua kasuan kasuko autonomi elkartearen Bilerei buruzko Legeak arautuko ditu eta, irakaskuntzaren programazioaren ondorioetarako, ukituriko sektore guztien partehartzea bermatu beharko da.” 35. artikulua hauxe dio: “Botere publikoek, dagozkien eskumenak erabiliz, aurreko artikuluan zehaztutako lurralde eremurako ez beste baterako eskola kontseiluak eratu ahalko dituzte eta horien antolamendu eta funtzionamendua arautzeko behar diren xedapenak eman. Beti ere, kontseilu horietan, ukituriko sektore guztien partehartze egokia bermatu beharko da.”

Bide beretik, irakaskuntza zentroetako partehartze, ebaluazio eta gobernari buruzko azaroaren 20ko 8/1995 Lege Organikoaren 4. artikulua xedatzen du hezkuntza administrazioek eskola kontseiluak eratu ahalko dituztela, horien lurralde

eremu zehatza mugatuz eta osakera, antolamendua eta funtzionamendua zehaztuz.

Aipatu xedapenetan ezarritakoa aintzat harturik, beharrezkoa da indarra duen lege esparrua egungo arauak eta hezkuntza komunitateak eskatzen dutenari egokitzea, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrak ukitzen dituen sektore guztien partehartzea sustatzeko eta eraginkorragoa izan dadin. Hori helburu, Foru Lege honek sortzen dituen partehartze eta ordezkaritza erakundeek 1829ko Gorteen Legeak sortu zuen Nafarroako Hezkuntza Batzorde Nagusiaren jarraipena izan nahi dute, izan ere organo horren bidez azken hamarkadetan artikulatu baita Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Diputazioaren jarduketa bateratua eta, hari esker, foru araubidearen barruko eskumen esparru zabala zehaztu baita.

Konstituzioak indarra hartu ondotik, Nafarroako Foru Diputazioak 1979ko ekainaren 29an harturiko Erabakiaren bidez, Batzordean sartu ziren irakaskuntzaren inguruko hainbat agente sozialen ordezkariak, izan ere Konstituzioaren 27. artikuluan aldarrikatzen baita irakaskuntzaren programazio orokorrean ukiturik dauden sektore guztiek hori finkatzen parte hartu behar dutela. 167/1991 Foru Dekretuaren bidez, Batzordearen osakera eta eginkizunak aldatu ziren aldi baterako, horren antolaketa eta eskumenak Nafarroako Foru Komunitateak irakaskuntza ez-unibertsitarioko zerbitzu eta eginkizunak bere gain hartzearen ondorioz (abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretua) etorri zen egoerari egokitzearen. 167/1991 Foru Dekretuaren zioen adierazpenaren berean adierazten da Batzordearen osakera eta eginkizun horiek aldi baterako direla.

Gauzak horrela, Foru Lege honek amaiera eman nahi dio Nafarroako irakaskuntza arloko eskumenak erabiltzeko eta Nafarroako gizarteak hezkuntza administrazioan eta kudeaketan parte hartzeko prozesu arau-emaile eta historikoari, foru araubidean oinarritua. Hortaz, Legearen helburua da gizarteak irakaskuntzaren programazio orokorrean parte har dezan bideak ematea, partehartze hori antolatzea eta, batez ere, sustatzea, hezkuntzaren kudeaketa demokratizatuz eta beharrezkoa den kontrol sozialaren menpe jarritz. Izan ere, helburu horiek lortzea ezinbestekoa da Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan arautu diren irakaskuntzak ezartzeko egungo prozesuari begira.

Foru Lege honen helburua I. Tituluan finkatzen da eta bertan ezartzen dira, orobat, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programaziorako kontsulta, partehartze eta aholkularitzako goi mailako organoak.

II. Tituluan Eskola Kontseiluaren edo Hezkuntza Batzorde Nagusiaren jarduna arautzen da, Nafarroako lurralde eremuan irakaskuntza ez-unibertsitarioaren arloko organo aholku-emaile goren den aldetik, eta, halaber, ukituriko sektoreen goi mailako ordezkaritzarako erakundea. Kontseiluaren eginkizuna da oinarrizko alderdiak finkatzea, hezkuntzako politika orokorrari zuzenean lotuak eta Nafarroa osoan eragina dutenak.

Kontseiluaren jarduna eraginkorragoa eta arinagoa izan dadin, Batzorde Iraunkorrean arituko da, eta alde baterako batzordeak eratzea ere aurreikusi da, gai jakin eta zehatzak jorratzeko.

Azkenik, III. Tituluan ahalmena ematen zaie Nafarroako toki entitateei tokiko eskola kontseiluak eratzeko, toki jakin batzuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazioak ukituriko sektoreendako aholkularitza eta partehartze organoak izan daitezen.

## **I. TITULUA** **Xedapen orokorrak**

**1. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrak ukitzen dituen sektore guztien partehartze erreal eta eraginkorra Foru Lege honetan eta berau garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraikiz eginen da.

**2. artikulua.** Irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programaziorako kontsulta, partehartze eta aholkularitzarako organo gorenak ondoko hauek dira:

- a) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia.
- b) Horrelakorik bada, tokiko eskola kontseiluak.

## **II. TITULUA** **Nafarroako Eskola Kontseilua edo** **Hezkuntzako Batzorde Nagusia**

### **I. KAPITULUA** **Kontseilua zer den. Osakera**

**3. artikulua.** Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazioak ukitzen dituen gizarte sektore guztiendako kontsulta, partehartze eta aholkularitzarako organo goren da.

**4. artikulua.** Hezkuntza Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia kide hauek osatuko dute:

1. Kontseiluburua, Nafarroako Gobernuak izendatuko duena.

2. Nafarroan dauden maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatuetako irakasleen bost ordezkari, honela banatuta:

a) Ikastetxe publikoen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako irakasleen Langileri Batzordean ordezkari gehien duten hiru sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

b) Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza pribatuan ordezkari-tza handiena duten bi sindikatuetatik bana, nork berea aukeratu.

3. Bost ordezkari, legez eraturiko ikasleen guraso elkartearen federazioek proposatu eta bakoitzak duen bazkide kopuruaren arabera aukeratuak.

4. Ikasleen bi ordezkari, ikasleen elkarteek edo elkartearen federazioek proposatu eta bakoitzak duen bazkide kopuruaren arabera aukeratuak.

5. Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren eta enpresarioen elkartearen hiru ordezkari, elkartearen edo federazioen proposamenari jarraikiz bakoitzaren ordezkari-tzaren arabera aukeratuak, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeekin alderatuz, zentro horietako ikasle kopuruaren arabera.

6. Hezkuntza administrazioaren bost ordezkari, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak proposatuak.

7. Toki entitatearen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

8. Irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonen artean aukeraturiko bi ordezkari, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren proposamenari jarraikiz.

9. Unibertsitateetako bi ordezkari, bata publikokoa eta bestea pribatukoa, kasuan kasuko gobernu organoaren proposamenari jarraikiz aukeratuak.

10. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kide, batzordeak berak aukeratuak.

11. Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari-tza handiena duen enpresarioen elkarteak proposaturiko ordezkari bat.

12. Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari-tza handiena duen sindikatuak proposaturiko ordezkari bat.

13. Nafarroako irakaskuntza zentroetako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, Administrazioa-Erroko Batzordeak proposatua.

14. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkari-lanak Nafarroako Gobernuak izendatzen duen pertsonak eginen ditu. Bilkuretara agertu beharko du, hizpidea bai, baina botorik gabe, eta aktak egin.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren esku utziko ditu bere eginkizunak egoki burutzeko behar dituen giza nahiz gauzazko baliabideak.

Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere eginkizunak aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen teknikari edo aholku-emaitzen laguntza eska dezake. Teknikari eta aholku-emaitze horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez.

Eskola Kontseiluko kideek uneoro eskatu ahaliko dizkiote Hezkuntza eta Kultura Departamentuari beren eginkizunak egoki burutzeko behar dituzten informazio eta agiriak, kontseiluburuaren bitartez.

**5. artikulua.** Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kideak, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren proposamenari jarraikiz, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera.

**6. artikulua.** 1. Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiko kideen kargualdia lau urtekoa izanen da.

2. Aurreko idazatian xedatutakoa gorabehera, kasuan kasuko erakundearen ordezkari-tza aldatzen duten hauteskundeak egin ondotik edo haien ordezkariak berriro ondotik, talde horietako ordezkariak berretsi edo aldatu beharko dira, 5 eta 6. artikuluetan ezarritako moduan.

3. Talderen baten ordezkari edo betetzen ari diren karguagatik Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian dauden kideek Kontseiluko kargua utzi beharko dute taldearen ordezkari-tza galdu edo kargu hartatik kendu bezain pronto.

4. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian postu hutsen bat gelditzen bada, beste kide bat izendatuko da 5 eta 6. artikuluetan ezarri bezala, postua utzi duenari dagokion kargualdia amaitu bitarte aritzeko.

## II. KAPITULUA

### Kontseiluaren eginkizunak eta eskumenak

**7. artikulua.** 1. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiari honako gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaio:



a) Nafarroako Gobernuak onetsi behar dituen hezkuntza arloko Foru Legeen aurreproiektuak eta erregelamendu betearazle orokorren proiektuak.

b) Ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta geografikoki banatzeko plangintza orokorrerako printzipioak.

c) Ikastetxeetako ezaugarriei, plantilei eta hezkuntza ekipamenduei buruzko arau orokorrak.

d) Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutako finantzaziorako irizpide orokorrak.

e) Hizkuntz ereduak eratu eta ezartzeko xedapen orokorrak.

f) Nafarroako Gobernuaren beka eta ikasketagantza sistemaren oinarritzko printzipioak.

g) Irakaskuntza ez-unibertsitarioko eskolaz kanpoko jarduerari eta zerbitzu osagarri buruzko arau orokorrak.

h) Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin edo beste autonomi elkarteekin sinatu beharreko hezkuntza arloko lankidetzak hitzarmen edo akordio proiektuak.

i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzera eta Nafarroako gizartearen egoerari egokitzera bideraturiko xedapen eta jarduketak orokorrak eta gizarte-sektoreen artean eta giza-banakakoen artean dauden diferentzia eta mailaketak konpentsatzera bideraturikoak.

2. Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiak, bere aldetik, honako gai buruzko proposamen eta txostenak igorri ahalko dizkio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari:

a) Hezkuntza sistemaren ebaluazioa.

b) Irakaskuntzako zentrozen araubidea.

c) Ikastetxe publiko eta pribatuetan legezko arauak betetzea.

d) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza.

e) Giza baliabideen arloko jarraibideak.

g) Irakaskuntzaren programazio orokorrari loturiko beste edozein.

3. Hezkuntza eta Kultura kontseilariak Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiari eskatu ahalko dio Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorraren inguruko beste gai batzuei buruzko iritzia eman dezan.

### III. KAPITULUA

#### Kontseiluaren eta Batzorde Iraunkorren funtzionamendua

**8. artikulua.** 1. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia osoko bilkuran, batzorde iraunkorrean edo aldi bateko batzordeetan arituko da.

Batzorde Iraunkorreko kideak honako hauek izanen dira:

a) Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko burua, edo horrek eskuordeturiko pertsona, Batzorde Iraunkorreko burua ere izanen dena.

b) Hezkuntza administrazioaren ordezkari bat, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak izendatua.

c) Irakasleen hiru ordezkari, bi ikastetxe publikoena eta bata ikastetxe pribatuena.

d) Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioetako bi ordezkari.

e) Ikastetxe pribatuetako entitate titularren eta enpresario elkartearen ordezkari bat.

Arestiko c), d) eta e) idaztatietan aipatu ordezkarien hautapena eta izendapena Osoko Bilkuran sektore edo talde horiek dituzten ordezkariak egiten dute, euren artean aukeraturik.

Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkaria Batzorde Iraunkorreko idazkari ere izanen da.

2. Batzorde Iraunkorren haxe dagokio:

a) Osoko bilkurak agintzen dizkion txosten eta proposamenen azterlan eta proiektuak egitea eta osoko bilkurara eramatea.

b) Kontseiluaren Osoko Bilkurak, kideen bi herenek onetsirik, delegatzen dizkion proposamenak eta txostenak onestea.

c) Urteko lan proposamena egitea eta osoko bilkurara eramatea.

d) 11. artikulua aipatzen dituen txosten eta oroitidazkia egitea eta osoko bilkurara eramatea.

### IV. KAPITULUA

#### Aldi baterako batzordeak

**9. artikulua.** 1. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak aldi baterako batzordeak eratu ahalko ditu, Osoko Bilkurak agintzen dituen gai berezi eta jakinei buruzko txosten eta proposamenen inguruan proiektu eta azterlanak egiteko.

2. Batzorde horiek eratu ahalko dira Foru Komunitateko lurraldeko eremu jakin batean jarduteko.

## V. KAPITULUA

### Beste xedapen batzuk

**10. artikulua.** Batzordeek egiten dituzten proposamen eta txostenen proiektuak ez dira lotestekak izanen Osoko Bilkurarentzat.

**11. artikulua.** 1. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak urtero hezkuntza sistemen eboluzioari buruzko ondorio eta aholkuak biltzen dituen txosten bat eta jarduera oroitidazki bat prestatu beharko ditu. Horren ondorioetarako, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ikasturte bakoitzeko oroitidazkia igorri beharko dio. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak ahalmena izanen du oroitidazki hori osa dezala eskatzeko, egokitzen hartzen duen informazioarekin.

2. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak egin beharreko txosten eta oroitidazki horiek Hezkuntza eta Kultura Departamentura igorriko dira, argitarara eman ditzan.

## III. TITULUA

### Tokiko eskola kontseiluak

**12. artikulua.** Tokiko eskola kontseiluak irakaskuntza ez-unibertsitarioko irakaskuntzaren programazioak ukitzen dituen sektoreendako aholkularitza eta partehartze organoak dira, tokian-tokian eratzen direnak.

**13. artikulua.** 1. Tokiko eskola kontseiluak eratzeko erabakia ikastetxea kokatuta dagoen dermioko toki entitateak edo ikastetxeak berak har dezake.

Eskola kontzentrazioak direnean, eragin eremuko edozein udalen ekinbidez har daiteke erabaki hori.

2. Nafarroako Gobernuak eskumena du tokiko eskola kontseiluen antolamendu eta funtzionamendurako oinarri orokorrak erregelamendu bidez ezartzeko.

3. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, toki entitateak proposaturik, Kontseiluaren osaketa onetsiko du, Kapitulu honetan eta, horrelakorik bada, Nafarroako Gobernuak onesten duen erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

**14. artikulua.** Tokiko eskola kontseiluek kasuan kasuko ikastetxeen eragin eremuko toki entitateek eskatzen dituzten txostenak egin beharko dituzte eta eratzeko arauetan agintzen zaizkionak, toki entitateen eskumena den hezkuntza arloko gaiei buruz.

2. Tokiko eskola kontseiluek, beti ere, aurreko idazatian aipatu gaiei buruzko proposamenak egin ahalko dizkiete dagozkien toki entitateei.

3. Orobat, tokiko eskola kontseiluek Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiari igorri ahalko dizkiote hezkuntza arloko gaiei buruzko proposamenak, beren eragin esparruari badagozkio eta, Foru Lege honetan xedatutakoaren arabera, beren eskumenekoak baldin badira.

### Xedapen Gehigarriak

**Lehena.** Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia legez erata geldituko da kide edo ordezkarien bi heren, bederen, izendatzen direnean.

**Bigarrena.** 1. Eratu eta sei hilabeteko epearen barruan, Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak antolamendu eta funtzionamendurako erregelamendua prestatu beharko du, non arautuko baitira Osoko Bilkuraren bilerak deitu eta egiteko prozedura, proposamenak eta txostenak onesteko bidea, batzordeak eratu eta funtzionatzeko arauak eta Kontseiluak egoki funtzionatzeko behar diren gainerako alderdiak.

2. Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua Hezkuntza eta Kultura Departamentura igorriko da eta honek Nafarroako Gobernuari helaraziko dio, onetsi dezan.

### Xedapen Iragankorrak

**Lehena.** Foru Lege honek arautzen duen Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eratu bitartean, egun indarra duen Nafarroako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak segituko du bere eskumeneko eginkizunen ardura izaten.

**Bigarrena.** Foru Lege honek indarra hartu ondoren eratzen den lehenbiziko Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusian, ikasleen ordezkariak sartuko dira Batzordea eratu eta hiru hilabetera, orduan duketen ordezkariaren arabera.

### Azken Xedapenak

**Lehena.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honetan ezarritakoaren aurka jotzen duten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak baliorik gabe utzi dira.

**Hirugarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitarara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



**D Saila:**  
**HITZARMENAK**

## **Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmen proiektua, Soldadutzaren ordezkoko Zerbitzuari buruzkoa**

Nafarroako Gobernuak hurrengo hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 162 artikuluan ezarritakoa betez: Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmen proiektua, Soldadutzaren ordezkoko Zerbitzuari buruzkoa.

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apestegüía

### **Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmen proiektua, Soldadutzaren ordezkoko Zerbitzuari buruzkoa**

#### **BILDURIK**

Alde batetik, Carlos Lesmes Serrano jauna, Justizia Ministerioko Kontzientzia Eragozpen Zuzendari Nagusia, maiatzaren 24ko 1196/1996 Errege Dekretuak (25eko EAO) egindako izendapenaren indarrez.

Beste batetik, Calixto Ayesa Dianda jauna, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria, Nafarroako Gobernuaren ordezkaria, itun hau izenpetzeko baimena duena hurrengo Erabakia-  
ren bitartez:

#### **ADIERAZI DUTE**

**Lehena.-** Kontzientzia Eragozpen Zuzendaritza Nagusiak, Justizia Ministerioaren politika aplikatzeko ardura duela kontzientzia eragozpenari eta soldadutzaren ordezkoko zerbitzuari dagozkienetan, indarreko legediak ezarritakoaren arabera. Bereziki, entitate laguntzaileei onespina ematea dagokio, itun egokiak izenpetuz (abuztuaren 6ko EAO n argitaratu den Justizia Ministerioaren oinarriko egitura organikoari buruzko abuztuaren 2ko 1882/1996 Errege Dekretuko 4. artikulua).

**Bigarrena.-** Nafarroako Gobernuari (aurrerantzean, "entitatea") entitate laguntzaile izaera onartu zaiola, kontzientzia eragozleen ordezkoko zerbitzuari dagokionean, 1990-03-20an izenpeturiko itunaren bidez. Itun horrek aritzeko 20 postu aurreikusten zituen eta indarrik gabe geratuko da honako honek indarra hartzean.

Hirugarrena.- Bi aldeek elkarri aitortzen diotenez itun hau izenpetzeko lege-gaitasuna, hurrengo baldintzen arabera formalizatuko dutela

#### **BALDINTZAK**

**Lehena.-** Kontzientzia eragozleen atxikipena.

1. Kontzientzia Eragozpen Zuzendaritza Nagusiak (aurrerantzean "KEZN") 200 kontzientzia eragozle atxikiko dizkio, gehienez ere, entitateari. Eragozleen zerbitzualdia itun hau izenpetzen denetik hasi eta jardunaldia bukatu arte luzatuko da. Aipatu postuek indarra hartuko dute eranskinan agertzen den egutegiaren arabera.

2. Entitateak ezin izango du atxiki zaizkion eragozleen zerbitzuak beste inori laga.

3. KEZNeK kontzientzia eragozleen atxikipena aldatzea erabaki dezake, hurrengo arrazoiak direla eta:

a) Ohiko bizilekua aldatu behar duen eragozlearen eskaria.

b) Eragozlearen gaitasunik eza esleitu zaion jarduerarako, atxikipen-programan edo zentroan haren gaitasunari hobeto egokitzen zaion posturik ez bada.

c) Erregelamenduaren arabera ezarritako zehapena.

d) Eragozleari esleitu zaion programa edo zentroaren ardura duen entitatearekiko ituna deusezte.

e) Ordezko zerbitzuaren araubidearen eta bete beharreko zerbitzuen onerako bada.

**Bigarrena.-** Kontzientzia eragozleek egin beharreko programa eta jarduerak.

1. Eranskinean aipatzen diren jarduketaz osatuko da eragozleak arituko diren programa edo zentroa, alegia, eranskinean aipatzen diren jarduera zehatzak burutu beharko dituzte. Burutu beharreko jardueraren edozein aldaketak KEZNren aurreko baimena beharko du.

2. Kontzientzia eragozleak inolaz ere ez dira erabiliko zentroko plantilako postuetan edo zentroko enplegatuen ordeiz. Aipatu zereginak egiteak inolaz ere ez du lan-harremanik erakarriko.

3. Eragozleen jardueraren ondorioz ondare publikoen ekoizkinak, akzesioak edo hobekuntzak sortzen badira, dagozkion ondareen jabe den pertsona juridiko-publikoaren titularitatepekoak izango dira.

**Hirugarrena.-** Jardueraren araubidea, baldintzak eta iraupena.

1. Ordezko prestazioaren iraupena asteko hogeita hamabost eta berrogei ordu bitartekoa izango da, eranskinean agertzen den bezala, eta asteko eta urteko atsedendialdiak derrigorrez bete beharko dira. Aipatu aldiaren aldaketa orok KEZNren aurreko baimena beharko du.

2. Destinoko zerbitzu eta zentrozen beharriaz eskatzen dituzten modu eta baldintzen arabera burutuko dute bere jarduera kontzientzia eragozleek. Jarduteko baldintzak, oro har, entitatean, dagokion alorrean, enplegaturiko langileentzako legez ezarritakoen parekoak izango dira, eta eragozleak destinoko zentroaren barne-araubide eta antolaketa-sistemaren menpe geratuko dira. Kasu berezietan, eranskinean agertzen direnak izango dira entitateak eragozleei ematen dien jarduera burutzeko araubidea eta baldintzak. Aipatu eranskinak dioena edozein modutan aldatzeko, KEZNren aurreko baimena beharko da.

3. Entitateak bere gain hartzen du indarreko legediak ezarri dituen laneko segurtasun eta higiene baldintzak benetan betetzeko ardura.

4. Programa edo zentro berari atxikitako zazpi kontzientzia eragozle bakoitzeko, entitateak begirale bat izendatzea proposa diezaioke KEZNRi. Era berean, bateragile bat izendatzea proposa dezake, hamabost eragozleek osaturiko talde bakoitzeko. Kasu bietan zehaztuko dira izendatuen zereginak.

**Laugarrena.-** Jardueraren kontrolak.

Entitateak bere gain hartzen du bertaratzea, orduotasuna eta egonaldia kontrolatzeko zeregi-

na, eragozleei emandako eginkizunei buruzkoetan.

**Bosgarrena.-** Prestakuntza eta beste eginkizun batzuk, entitatearen kontura.

1. Jarduerak hobeto bete ahal izateko, entitateak bere gain hartzen du kontzientzia eragozleei prestakuntza-jarraibideak ematea, entitatearen helburu, antolamendu eta burutu beharreko zereginari buruzkoak, eta baita ere eragozleen eskubide eta betebeharren araubide orokorrari eta izenpeturiko itunaren edukiari buruzkoak. Jarraibideon edukiak edo nondik norakoak ezin izango dituzte aukera ideologiko edo erlijiozkoak bultzatu.

2. Entitateari dagozkio, oro har, otsailaren 24ko 266/1995 Errege Dekretuak onetsitako Erregelamenduak eta gainerako xedapen indarrekoak ematen dizkieten eginkizunak, itun honek berenberegiri aipatzen dituenen kaltetan gabe.

3. Entitateak bere gain hartzen du atxikitako eragozleen arduradun bat izan beharra. Erregelamenduak ematen dizkion eginkizunak bereganatuko ditu hark, eta bereziki, eragozleak jarduera egokietan benetan aritzeko ardura, eragozleek bere eskubide eta betebeharrei buruzko informazio egokia jasotzearena eta eragozleek burutu beharreko zereginen zuzendaritza.

4. Entitateak behar bezalako erraztasunak emango dizkie ordezko zerbitzua begiratzeko eta ikuskatzeko organoei eta gobernu zibilei, eginkizunok bete ditzaten.

5. Kontzientzia eragozleak zer programa edo zentrotan ematen duen zerbitzua, hango arduraduna gaitu ahal izango da zehapen-espeditate baten instruktore gisa, edo bestela, dagokion entitate laguntzailearen beste norbait.

**Seigarrena.-** Entitateari eman beharreko diru-laguntzak eta ordainak.

1. Entitatearen kontuko lojamendua eta mantenua ordaindu egingo dira, moduluen arabera, eragozleei esleitutako postuak araubide horren baitan baldin badira. Irtenbide bera erabiliko da entitateak jardun-eguneko bazkaria ematen duen postuetan.

Lojamendu eta mantenu gastuak ordaintzeko moduluak, orobat jardun-eguneko bazkariari buruzkoak, horretarako arautu direnak izango dira.

2. Eragozleek bere jardunaldian eragin ditzaketan ohiz kanpoko gastuak, dagozkion itunetan aurreikusi gabeak baldin badira eta eragozleei ezin egotz dakizkiekeenak, KEZNren kontura izango dira.

3. Kontzientzia eragozleari inolaz ere ez zaio dirurik emango goian aipatutakoen ondoriozko gastuak ordaintzeko.

**Zazpigarrena.-** Derrigorrez bete beharreko dokumentazioa eta KEZNrentzako komunikazioak.

1. Eragozleei dagozkien eginkizunak benetan betetzen direla bermatzeko, entitateak bere gain hartzen du gorabehera eta ikuskapen Liburu Ofiziala erabiltzea. Liburuak hurrengoak jasoko ditu: egunero gertatzen diren bertaratze-etak edo ordutasun-akatsak, emandako baimenak eta kasuan kasuan egoki diren justifikazioak. Ikuskatzaileek Liburuan erasoko dituzte egindako bisitak.

2. Ordezko zerbitzua dela eta, entitateak KEZNri bidaliko dizkio eragozleek aurkez ditzaketen eskari, iradokizun eta erreklamazioak, eta baita erakundearen beraren txosten eta jakinarazpenak ere, orobat KEZNk eskatzen dizkionak.

3. Baldintza honetan ezarritakoa errazago bete ahal izateko, KEZNk berak emango dizkio entitateari gorabehera eta ikuskapen Liburu Ofiziala eta ordezkko zerbitzua kontrolatzeko ezarri diren ereduak.

4. Erakundeak bere gain hartzen du, hala egokitzen bada, eragozleentzako diru-kopuruen aplikazioa dokumentuz justifikatu beharra, eta baita eragozleei emandako zerbitzu edo prestazio ordaingarriak bete direlako ere.

5. Entitateak ezin izango die kontzientzia eragozleei indarreko legedian eta itun honetan aurreikusitakoez bestelako onurarik eman, gainerako eragozleekiko eta soldadutza betetzen ari direnekiko ezberdintasun nabarmenik sor ez dadin, eta jarduera betetzeko baldintzak, oro har, dagokion alorreko langileentzako ezarri direnen parekoak izatea begiratu du.

**Zortzigarrena.-** Itunaren indarraldia eta suntsiarazpena.

1. Izenpetzen den egun berean hartuko du indarra itun honek eta bi urtez luzatuko da haren indarraldia. Besterik gabe luza daiteke indarraldia, bata bestearen ondorengo bi urteko aldietan, aipatu aldiaren itunaren xede diren jarduera-programek irauten badute, behintzat.

2. Ituna suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

a) Ituneko baldintzetako bat edo ordezkko zerbitzua arautzen duten xedapenak ez betetzea, batez ere eragozleak onura publiko edo gizarte intereseko zereginetan aritzeari dagokionean.

b) Itunak xede duen jarduera-programa desagertzea.

c) Ordezko zerbitzuaren ikuskapenari uko egi-tea edo hura eragozte.

d) Aldeetako batek besteari jakinaraztea ituna suntsiarazteko asmoa duela, suntsiarazpena baino sei hilabete lehenago.

3. Ituna aurretik suntsiarazteak dagokion kitapen ekonomikoa erakarriko du.

**Bederatzigarrena.-** Azkena.

1. Edonola ere, kontzientzia eragozleen ordezkko zerbitzuaren berezko arautegia erabili ahalko da eta bereziki: abenduaren 26ko 48/1984 Legean eta hura garatzeko Erregelamenduan, otsailaren 24ko 266/1995 Errege Dekretuak onetsian, ezarritakoa.

2. KEZNk zuzenean bidali ahal izango dizkie jarraibideak, zirkularrak edo agindu bereziak eragozleek ordezkko zerbitzua betetzen duten zentro edo zerbitzuei, araubide juridikoari buruzkoetan edota itun honetan aipatzen direnei buruzkoetan.

3. Kontzientzia Eragozpen Zuzendari Nagusiarri dagokio itun hau interpretatzea eta itunaren edukian edo aplikazioan izan daitezkeen zalantzak argitzea.

4. Itunaren interpretazio, aldaketa, suntsiarazpen eta ondorioei buruzko gatazkarik baldin bada, Kontzientzia Eragozpen Zuzendari Nagusiak ebatziko du eta haren erabakiak buru emango dio administrazio-bideari. Errekurtsio kontentzioso-administratiboa jar daiteke erabaki horien aurka, aipatu jurisdikzioa arautzen duen Legeak xedatuarekin bat.

Bat etorririk, Itun hau izenpetzen dute, ale bikoitzean, ondorio bakarerrako, atalburuan aipatu toki-egunetan.

## ERANSKINA

### Programen zehaztasunak eta baldintzak

*Erakundea:* Nafarroako Gobernua

*Programak edo jarduerak:* Nafarroako Gobernuko Administrazioaren programa, zentro eta zerbitzuetan burutuko dituzte kontzientzia eragozleek lankidetzeta eta laguntza lanak, onura publikoko jardueren bitartez, gizarte-ongizate, behartsuen babesa eta bizimoduaren kalitatea hobetzeko helburuekin bat.

Horretarako, ordezkko zerbitzuaren programak hurrengo arloetan gauzatuko dira (eta gero sortuko diren beste batzuetan), eta eragozleak ezin

izango dira lanpostuetarako edo aldi baterako ordezkapenentarako erabili:

– Herri Babesa.- Herri babeserako jardunetan, komunikazioetan, suteei aurre hartzeko eta suak itzaltzeko laguntzaile zereginetan eta abarretan lankidetzaz ematea.

– Hezkuntza eta Kultura: Gutxiengo etnikoak eta ospitalean dauden ikasleei laguntzea, gizarte-bermeko eta eskolaz kanpoko programetako lankidetzaz, eskola-garraioa. Ondare artistiko eta arkeologikoari buruzko informazio eta zaintzan laguntzea, eta abar.

– Kirola eta Gazteria.- Lankidetzan aritzea, hurrengoetan: gazteentzako informazio eta dokumentazio zerbitzuetan, kulturgintzakoetan, ikasle-egoitzetan, kirol eta aisialdirako instalazioak zain-tzen, kirola sustatzen, eta abar.

– Osasuna.- Eriari eta haren familiari laguntza ematea, osasun arloko laguntza eta animazioa, gizarte eta osasun jardueretan laguntzea, eta abar.

– Gizarte Ongizatea.- Zaharrei, eriei eta gutxi-tuei lagun egitea, adin txikikoei arreta egitea, Dro-gamenpekotasunen Planeko lankidetzaz, eta abar.

– Ingurugiroa.- Ingurugiroaren babesari buruz-ko zaingoa eta informazioa.

*Jarduera-postuak, guztira: 200.*

*Ordutegia eta asteko atsedena:* Burutu behar-ko zerbitzuaren beharrezanek finkatuko dute ordutegi-mota. Asteko iraupena 35 eta 40 ordu bitartean izango da, eta zerbitz-eguna honelakoa izan daiteke:

- a) Goizez (8etatik 15etara edo antzekoa)
- b) Arratsaldean (15etatik 22etara edo antzekoa)
- c) Goizez eta arratsaldean (bazkaria egiteko tar-tearekin)
- d) Txandaka edo berezia (ezin izango du egu-neko 12 ordu baino gehiago izan, asteko hiru egun txandakatuta. Ezin izango da aste burua bakarrik egin).

Eragozleak bere destinoetan sartzean finkatu-ko da ordutegi zehatza. Zerbitzualdiaren orduak gehitzea gerta daiteke, ohiz kanpokoetan. Dago-kion ordu-kontentsazioa egingo da holakoetan.

Asteko atsedena larunbat eta jaiegunetan egingo da, eskuarki. Ordutegi berezietan, ordea, ordutegi motaren arabera edo txanden arabera.

*Lojamendua eta mantenua:* Postuek "oo" arau-bidea izango dute (lojamendu eta mantenurik gabe).

*Jarduera postuen kokapena:* Lehenetsuna emango zaie Iruñeko kokapenei, eta baita Altsa-su, Burlata, Lizarra, Tuteran, Atarrabia... eta abarrei, Nafarroako eragozle gehienak horietan bizi direlako.

Entitateak baimena du beharrezko programa-aldaketak egiteko, eragozleak beraien herrietan egoki daitezkeen. KEZNri jakinarazi beharko dizkio dagozkion programetan gertatu diren alta eta bajak, bost eguneko epean, gehienez ere.

*Bulego teknikoa eta zerbitzuratzeko:* Nafarroako Gobernuak, Ordezko Zerbitzuzaren Bulego Tekni-koa paratuko du eragozleak destinoratzeko. Desti-noratzeko Iruñetik kanpo egin behar denean, herri bakoitzean helbide bakarra izateko ahalegina egingo da, eragozleak hartu eta programa ezber-dinen artean banatzeko gero.

Hona eragozleak zerbitzuratzeko hasierako helbidea:

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua  
Arrieta, 25. 31002, Iruña.  
Tel.: 427897. Fax.: 227469  
Arduraduna: Ana Elizalde Urmeneta

*Indarrean sartzeko egutegia:* Itun honen xede diren postuak hurrengo egutegiaren arabera gaituko dira:

– 1997ko iraila, .....	50 postu
– 1997ko urria,.....	50 postu
– 1997ko azaroa,.....	50 postu
– 1997ko abendua,.....	50 postu

Indarrean sartu ahal izateko, Batzorde Tekni-koak arian-arian emango dizkio KEZNri dagozkion programen helbideak eta zehaztasunak.

---

**F Sails:**  
**GALDERAK**

---

## **“Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredia ezartzeari buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak “Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredia ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejok “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza Bozeramaleak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatzuz:

Joan den urtera arte ikasleentzat birkontrataturiko euskara zerbitzua zuen “Vázquez de Mella”

Iruñeko ikastetxe publikoak eskolaz kanpoko ordutegian.

Maiatzaren 28an, Legeak hizkuntza ereduaren aldaketa eskatzeko xedatzen duen epearen barnean, “A” eredia aldatzeko 118 eskaera aurkeztu ziren Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuan.

“Vázquez de Mella” ikastetxe publikoko ikaslegoaren ehuneko 70 ordezkatzen duten guraso hauen eskakizunari ez zaio inolako erantzun ofizialik eman.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

Zer erantzun emango die Nafarroako Gobernuak 97/98 ikasturtean “Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredia pasatzeko aurkeztu diren 118 eskaerei?

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

---

## **DBH, IEE, LH eta UBiko ikastetxeetan goizeko jarduna bakarrik egiteko baimenari buruzko galdera**

*M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak DBH, IEE, LH eta UBiko ikastetxeetan goizeko jarduna bakarrik egiteko baimenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía



**GALDERAREN EDUKIA**

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejok "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza Bozeramaleak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

97/98 ikasturterako eskola egutegiaren arauetarako buruzko 65/1997 Ebazpenak, otsailaren 4koa, goizeko jarduna (astelehenetik-ostiralera) eta gutxienez bi arratsalde xedatzen ditu DBH, IEE, LH eta UBIko ikastetxeetarako.

Arau honen salbuespenek ohiz kanpoko izaera izango dute eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari eskatu beharko zaizkio onartuak izan daitezten.

Hil honen 18an, Herrikoa Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioak idatziz adierazi dio Hezkuntzako Goi Batzarrari hezkuntza administrazioak bigarren hezkuntzako eta derrigorrezkoaren

ondoko hezkuntzako ikastetxeei jardun "trinkotu" hauei emandako baimenarekiko desadostasuna.

Ikastetxe batzuetan, ikasleak manipulatu dituzten inkestak bidez, ordutegi trinkoaren aldeko eta kontrako alderdiak eta gurasoen arteko borrokak kontutan hartu gabe, dirudienek salbuespena erabiltzen ari dira arrazoi objektiborik edo pedagogikoki positiborik izan gabe.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

1. Zer irizpide, 65/1997 araudian jaso ez direnak, erabiltzen ari da Administrazioa goizez bakarrik jarduteko baimena ematerakoan?
2. Zenbat eta zein ikastetxeri eman zaie goizez bakarrik jarduteko baimena?

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## **D eredia dela-eta, ikastetxe publiko eta pribatuetan sortu diren tirabiren ondorioz Nafarroako Ikastolen Elkarteak aurkeztu dituen salaketei buruzko galdera**

### *INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Inmaculada Matias Angulo Foru Parlamentari andreak D eredia dela-eta, ikastetxe publiko eta pribatuetan sortu diren tirabiren ondorioz Nafarroako Ikastolen Elkarteak aurkeztu dituen salaketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Inmaculada Matías Angulok "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Nafarroako Ikastolen Elkarteak ikastetxe mota hau ito nahiko lituzkeen Nafarroako Gobernuaren jokaera publikoki salatzen du berriki. Izan ere, D ere-

dia dela-eta zenbait gatazka sortzen ari dira ikastetxe publiko nahiz pribatuetan. Honen aurrean jakin nahi da:

1. Zeintzuk dira benetan ari diren eta administrazio baimenik ez duten ikastolak? Zenbat ikasle ditu bakoitzak ematen duten maila bakoitzean?
2. Donapea ikastetxean zein da 97/98 ikasturterako D ereduaren eskaera? Ikastetxean eredu hau ematen segituko dute? Ezezkoan, zer arrazoiarengatik?
3. Zergatik ez du konpontzen Hezkuntza Departamentuak Axular Ikastolatik kanpo geratu diren ikasleen egoera?
4. Antsoainen eta Irunberrin zein da D ereduaren eskaria? Eskaerak aipatutako udalerrietan lerro berriak jartzeko nahikoa al dira?
5. Nafarroako Gobernuak zergatik ez du bete Parlamentuak ikastola batzuen moldaketaren, Paz de Zigandarena esate baterako, ehuneko 50a ordaintzeko eman dion agindua?

Iruñean, 1997ko ekainaren 20an

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo



## Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko “Gas Navarra”rekin izenpeturiko hitzarmenari buruzko galdera

*LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko “Gas Navarra”rekin izenpeturiko hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslavak “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak

ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz honako:

Industria Kontseilariak Erriberako 23 herri gas naturalaz hornitzeko hitzarmen bat sinatu du berriki Gas Navarra enpresako buruarekin, 5.517 milioiko gastua ekarriko duena. Honen aurrean jakin nahi da:

1. Hitzarmenean aurreikusten diren herriak aukeratzeko, zer irizpide erabili ditu Nafarroako Gobernuak?

2. Gas natural sarea Nafarroako beste eskualde batzuetara hedatzeko aukera aztertu al du Nafarroako Gobernuak?

3. Gas naturalaren hornikuntza beste eskualde batzuetan ez dela bideragarria uste al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

## Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruzko galdera

*PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Pedro Uriz Lanzek “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatzizko erantzuna eskatuz:

Komunikabideetan Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, dozenaka arrain hilik agertu direla dioen albisteak zabaldu da.

Honen zioa A-15 Autopista Elortz ibaiaren gainetik pasatzen den zubitik ibaian gora metro batzuetara dagoen hodontik egindako isurketa izan daitekeela gaineratzen da.

Honen aurrean jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak jakin al du Elortz ibaian arrain hilak azaldu direla?

2. Ingurugiro Departamentuak arrain hauen heriotzaren zioak antzeman al ditu?

3. Dirudienez ibaiaren bizitzarako kaltegarriak diren gaiak isurtzen diren hodia dela-eta jardunen bat aurreikusi al du Gobernuak?

Iruñean, 1997ko ekainaren 29an

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz

## **Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Andrés Bastera Layana Foru Parlamentari jaunak Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Bastera Layanak "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikirik Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari idatzizko erantzuna eskatuz :

Institutos Técnicos y de Gestión direlakoek beren hastapenetatik orain arte lan handia egin dute nekazaritza eta abeltzaintza jardunei lagunduz, aholkularitza lanei dagokienean nahiz espermentazioan eta ikerketan.

Legegintzaldi honetan, Nekazaritza Batzordean, parlamentari talde guztiek aintzat hartu dute

hori baina horrek ez du esan nahi antzeman daitezkeen akats txikiak konpondu ezin direnik, sozietate hauen merezimenduak inola ere estali gabe.

Honela, eta ez duela hilabete asko, Instituto Técnico y de Gestión Ganadero delakoak egiten zituen izaera komertzialeko hainbat jardun bertan behera utzi zituen, estatutuetan propio aipatzen diren xedeen artean laguntza teknikoa, espermentazioa eta ikerkuntza aurkitzen baitira, baina ez dago bertan entitate pribatuekin komertzializatzen diren zerbitzuak ematea.

Honen aurrean jakin nahi da:

1. Nekazaritza Kontseilariak uste al du Institutos Técnicos y de Gestión direlakoek dagoeneko enpresa pribatuek eskainita merkatuan dauden izaera komertzialeko jardunak egin behar dituztela?

2. Nekazaritza Kontseilariak baieztatu dezake Institutos Técnicos y de Gestión direlakoak enpresa pribatuekin lehia zuzenean inolako jardun komertzialik ez direla egiten ari? Ezezkoan, jakinaraz dezake Kontseilari jaunak Sozietate hauek gaur egun izaera honetako nolako jardunak egiten ari diren eta zergatik egiten diren?

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: Andrés Bastera Layana

## **Nafarroako Ospitaleko D pabilioia (kardiologia) birmoldatzeari buruzko galdera**

*ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ospitaleko D pabilioia (kardiologia) birmoldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

• Zerk eragin du Nafarroako Ospitaleko D Pabilioia (kardiologia) birmoldatzearen atzerapena?

• Denborari eta aurrekontuari dagokienez, zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak Nafarroako Ospitaleko D (kardiologia) Pabilioiak birmoldatzeko, aurrekontu ekitaldi honetan nahiz etorkizunean?

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

## Osasun Departamentuak ezarri dituen oxigenoterapia-hitzarmenei buruzko galdera

### ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Osasun Departamentuak ezarri dituen oxigenoterapia-hitzarmenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Ion Iñaki Erro Armendárizek "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

Jarduketa-desbideratzeen (saio-kopurua) eta haien kostu ekonomikoaren aldaketaren arteko alde protzentalak izan dira, 1996koak eta 1995ekoak alderatuz gero, Osasun Departamentuak ezarrita dituen oxigenoterapiarako hitzarmenetan, behean aipatu kapituluetan:

Prozesua	Desbideratzea saioetan 96-95	Zenbatekoaren aldaketa 96-95
Oxigenoterapia	%-20	%+13
Kontzentradoreak	%+39	%+100
Oxigeno likidoa	%+10	%+515?

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

## Construcciones Corellanas S.L. enpresari obrak esleitzeari buruzko galdera

### «EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak Construcciones Corellanas S.L. enpresari obrak esleitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldearen Bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

– Nafarroako Gobernuak edo organismo autonomoek esleitutako zenbat obratan agertzen da Construcciones Corellanas S.L. enpresa birkontratatzailerik bezala 1991tik 1997ra bitartean, bi urte hauek barne?

– Zer enpresa ziren aipatutako obren esleipendunak?

– Zeintzuk izan ziren obrak eta zer Departamentuk edo Organismok esleitu zituzten?

– Aipatutako esleipenetako lanen zenbatekoa, guztira eta banan-banan.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Bozeramalea: Begoña Errazti Esnal.

**Lanbide-tailerretako ikasleei beka emateari buruzko galdera***M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak lanbide-tailerretako ikasleei beka emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejok "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza Bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Eskola ikasturtean zehar Nafarroako lanbide-tailerretako ikasleagoak dirulaguntzak eska ditzake ikasketa mota honetarako beka berezietarako deialdiaren bidez.

Azken ikasturtean lanbide-tailerretako ikasleei 6.764.710 pezetako dirulaguntzak eman zitzaizkien deialdian, ikasturteko bigarren hiruhilabetekoan eskatu zituzten 148 gaztek onura atera zutelarik.

96/97 ikasturte hau lanbide-tailerretarako beka deialdi berezia atera gabe bukatu da. Atzerapena izan den hilabete hauetan guztietan Hezkuntza Departamentuak ez du inolako azalpenik eman.

Kontutan hartu behar da bakarrik Iruñeak eta Tuterak dituztela lanbide-tailerrak eta irtenbide hau hezkuntza aukera bakartzat duten gazte askok, Nafarroako beste herri batzuetatik egin behar dituzten bidaiari prezioak direla-eta, mugak dituzte. Beka deialdia ez ateratzean, laguntza faltak kalte egiten die batez ere egoera ekonomiko txarrean daudenei.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

1. Zer aurrekontu kontusail zuzendu da lanbide-tailerretako ikasleagoari beka emateko?

2. Zein da beka deialdiaren atzerapenaren arrazoia, beste ikasturte batzuetan abenduan edo urtarrilean ateratzen denean?

3. Noiz aterako da 96/97 ikasturteari dagokion beka deialdia?

4. Nola ordainduko zaizkio ikasleagoari ikasturte honetan bidaietan egindako gastuak, aipatutako beken bidez ordainduko ziratekeenak?

Iruñean, 1997ko ekainaren 27an.

Foru Parlamentaria: M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo

## Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteuguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Joan den ostiralean, ekainak 27, Marcotegui jauna agertu zen Hezkuntza Batzardearen aurrean Donapea institutuaren egoeraren berri emateko, eta ez zuen Bozeramale honek egin zion galdera erantzun. Hori horrela, berriro ere egiten diot galdera, ahalik eta lasterren erantzungo didalakoa.

Kontseilari jaunak egindako argumentazioaren ondorioz ateratzen da galdera hau, izan ere, kostu ekonomikoa azpimarratu baitzuen Aministrazio eta finantza goi zikloko moduluetan euskarazko irakaskuntzari ez eustea zuzitzeko.

Beraz, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat baliabide edo eskuarte askatuko da euskarazko moduluak kenduta?

– Zehatz bitez ukitutako moduluak eta ikasleak.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Lantzeko emaileen etxearen egoerari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Lantzeko emaileen etxearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteuguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Jakina da Lantzeko emaileen etxea oso gaizki dagoela eta badirudi obrak egin nahi dituztela han. Beraz, parlamentario honek hauxe jakin nahi du:

– Ekingo al dio Nafarroako Gobernuak aipatu etxea konpontzeari?

– Obrak hasi eta bukatzeko egunak.

– Guztizko kostua. Zehatz bedi zer obra egingo duten (zaticako kostu eta guzti)

– Enpresa esleipenduna. Oraindik esleitzeke baldin badago: hori egiteko prozedura, zehatz-mehatz.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Uxueko elizako obren egoerari buruzko galdera

### *BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Uxueko elizako obren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Uxueko elizako obren egungo egoera: Hasi al dira? Espedientearen egoera.

– Hasteko eta bukatzeko egunak.

– Egin beharreko lan konketuak. Zehaztu, kostu eta guzti.

– Enpresa esleipenduna: izena edo sozietatearen izena.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Aralarko Mikel deunaren obren egoerari buruzko galdera

### *BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Aralarko Mikel deunaren obren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Aralarko Mikel deunaren obren egungo egoera.

– Hasteko eta bukatzeko egunak.

– Egin beharreko lan konketuak. Zehaztu, kostu eta guzti.

– Enpresa esleipenduna: izena edo sozietatearen izena.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal



## Emakumearen Institua-aren aholkularitza juridikoari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Emakumearen Institua-aren aholkularitza juridikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Noren menpe dago Emakumearen Institua-aren aholkularitza juridikoa?

– Egia al da beste norbaiti eman zaiola, alegia, Institututik eta, beraz, Administrazioetik kanpo dagoen norbaiti?

– Hala balitz, nori, noiz eta esleipenaren baldintzak.

– Nortzuk geratu dira kanpoan? Zergatik?

– Esleipenaren zuzenespena, baita beste batzuei ez emateko arrazoiak ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Irakaskuntzaz besteko zereginetan ari diren irakasleei buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak irakaskuntzaz besteko zereginetan ari diren irakasleei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuaren menpeko irakasleen plantilan badira hainbat irakasle zuzenean irakasten ari ez direnak. Zenbat diren jakin nahi dut.

– 96-97 ikasturtean zehar irakasteko lanik egin ez duten plantila-irakasleen kopurua, Administrazioaren menpe izan badira ere.

– Zehatz bitez haiei emandako zereginak, horietako bakoitzaren kopurua ere aipatuz.

– 97-98 ikasturtean horrela izango diren programen kopurua.

– 96-97 ikasturtean zehar euskara-birziklaiarako liberatu den irakasle-kopurua, orobat 97-98an.

– 96-97 ikasturtean zehar bestelako ikasketarako liberatu den irakasle-kopurua, Administrazioaren menpe izan dena. Zehatz bedi zertan aritu diren.

– 97-98 ikasturterako emandako baimenak, arrazoi berberengatik.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## 1996-1997 ikasturtean sare publikoan diren irakasleei buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1996-1997 ikasturtean sare publikoan diren irakasleei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Nafarroako Gobernuaren menpeko irakasleak, hau da, sare publikokoak, 1996-1997 ikasturtean:

– Guztizko kopurua.

– Zenbat Haur Hezkuntzan, zenbat Lehen Hezkuntzan eta zenbat Bigarrean.

– Zehatz bedi euskarazkoak edo gaztelerazkoak diren, aurreko bakoitzean.

– Zehatz bitez irakasleak ikastetxez ikastetxe, eta baita irakaskuntza zer hizkuntza-eredutan ematen duten ere.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Diruz lagundutako eta itunpeko ikastetxeetan dagoen laguntzeko irakasleen guztizko kopuruari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak diruz lagundutako eta itunpeko ikastetxeetan dagoen laguntzeko irakasleen guztizko kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Laguntzeko irakasleen guztizko kopurua Nafarroako ikastetxe diruzlagunduetan eta itunduetan.

– Zehatz bedi, ikastetxez ikastetxe, laguntzeko irakasleen kopurua, hizkuntza-eredua eta zer urtetatik dauden.

– Irakasleen kontratu-baldintzak.

– Irakasle horien atxikipenaren arrazoiak.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## **Irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatu- kopuruari buruzko galdera**

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatu-  
kopuruari buruz egindako galderaren bidera-  
pena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatuak, Nafarroako Gobernuak mantenduak.

– Zehatz bitez zer ikastetxetatik datozen, zer sindikatuko kide diren eta noiztik eta noiz arte egongo diren horrela.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## **Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruzko galdera**

*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoera.

– Noren menpe dago? Zer organismo edo erakunde eutsi dio horri aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30a bitartean?

– Gizarte Ongizatekoek eta inguru horretako udal arduradunek hitz egin al dute horretaz? Noiz? Zer ondorio atera dute?

– Hartutako erabakiak eta, beti ere, negoziaketa-bidea (zehaztua: bilerak, norekin eta zer).

– Emakumeak hartzeko etxearen etorkizuna: noren menpe eta zer baldintzatan.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## 1997rako lan-eskaintza publikoari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1997rako lan-eskaintza publikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Gure Komunitateko enplegu eskaintza publikoa, 1997 urterakoa: eskainitako postuen guztizko kopurua.

– Horietatik zenbat euskaraz?

– Zenbatetan baloratu da euskara? Guztizko baremoarekiko proportzioa.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Europako Batasuneko estatu partaideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko laguntzen deialdiari buruzko galdera

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Europako Batasuneko estatu partaideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko laguntzen deialdiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 74. zenbakian ageri da 511/1997 Ebazpena, ekainaren 4koa, Nafarroako eta Europako Batasuneko estatu partaideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko 1997rako laguntzen deialdia ebazten duena.

– Aipatu laguntza eskatu duten ikastetxe guztien zerrenda.

– Esleipenerako erabili den baremoa.

– Truke horretarako aukeratu ez diren ikastetxeak, horrelakorik bada. Arrazoiak

Iruñean, 1997ko uztailaren 30a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

## Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera

«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Adolfo Araiz Flamariquek, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio hurrengo galderak idatziz erantzun ditzan, Lehendakaritza Departamentuaren bitartez:

1. Egia al da Nafarroako Gobernuak Burson-Marsteller komunikazio-enpresa kontratu duela, Itoiz-Nafarroako ubidea proiektuari buruzko komunikazio-estrategia aurrera eraman dezan?

2.- Zer Departamentu arduratu da aipatu zerbitzuaren kontratazioaz? Zer aurrekontu-kontusailetan oinarritu da kontratazioa? Zein izan da esleipen-prozedura? Bestelako enpresen eskaintzarik izan bada, zer prezio eskaini dute? Zer irizpide erabili da esleipena aipatu enpresari, eta ez beste batzuei, emateko?

3.- Zein da esleipenaren prezioa eta zein zerbitzuaren iraupena?

4.- Nafarroako Gobernuak ba al zekien aipatu enpresa irudiaren garbikuzia egiten espezializatua dagoela eta hurrengo gaietan, besteak beste, lanean aritu dela: "Argentinako diktadura militarren irudiaren garbikuzia, kanpoko inbertsioak hartzeko zailtasunak zituenean", "Union Carbide multinazionalari emandako laguntza, Indiako Bhopaleko hondamendia gertatu eta gero", eta antzekoetan?

5.- Zer helburu erdietsi nahi du Nafarroako Gobernuak enpresa horrekin? Ezin al du Gobernuaren beraren zerbitzuekin lortu?

Iruñean, 1997ko uztailaren 22an

Bozeramalea: Adolfo Araiz Flamarique

## Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómezek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1) Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioarako aurkeztu ziren enpresak.

2) Esleipenaren zenbateko.

3) Gaur egunera arte egindako lanak eta kontratuaren iraupena.

Iruñean, 1997ko uztailaren 24a

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurriz Gómez

## **Lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan, lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari dagozkion kontusail batzuk onetsi ziren. Aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, ahalik eta xehetasun gehienekin: jarduketa-kopurua, buruturiko jarduketak zein motatakoak diren eta abar.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1ean, izen hauek dituzten kontusailen kontabilitate- (betetze-) egoera:

– Etxebizitza-arloko jarduketarako dirulaguntzak (jabetza eta alojera).

– Lurzoru eta Etxebizitzaren Erosketa eta Sustapena.

– Herrigune Historikoak birgaitzeko eta beren leheneratzea finantzatzeko bulegoentzako dirulaguntzak.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **“Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

lamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan hainbat kontusail onetsi zen. Ingurugiro-politikari dagokionez, aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, buruturiko jarduketei edo emandako dirulaguntzaren zergatiari buruzko ahalik eta xehetasun gehienekin.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak, 11000-1 lerro-zenbakia.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco



## **“Ingurugiro Hezkuntzarako Programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten Beste Jardueretarako Dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro Hezkuntzarako Programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten Beste Jardueretarako Dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko

Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Errege-lamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan hainbat kontusail onetsi zen. Ingurugiro Politikari dagokionez, aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, buruturiko jarduketei edo emandako dirulaguntzaren zergatiari buruzko ahalik eta xehetasun gehienekin.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jardueretarako dirulaguntzak, 11090-7 lerro-zenbakia.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **“Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko

Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Errege-lamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan hainbat kontusail onetsi zen. Ingurugiro Politikari dagokionez, aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, buruturiko jarduketei edo emandako dirulaguntzaren zergatiari buruzko ahalik eta xehetasun gehienekin.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa, 90037-1 lerro-zenbakia.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **“Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Errege-

lamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan hainbat kontusail onetsi zen. Ingurugiro Politikari dagokionez, aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, buruturiko jarduketei edo emandako dirulaguntzaren zergatiari buruzko ahalik eta xehetasun gehienekin.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak, 11250-0 lerro-zenbakia.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **“Naturguneak babesteko Hitzarmena” deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Naturguneak babesteko Hitzarmena” deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Errege-

lamenduan ezarririkoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Aurrekontuei buruz Parlamentuan izandako eztabaidan hainbat kontusail onetsi zen. Ingurugiro Politikari dagokionez, aurtengo irailaren 1erako lortuko den betetze-maila jakin nahi da, buruturiko jarduketei edo emandako dirulaguntzaren zergatiari buruzko ahalik eta xehetasun gehienekin.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

Zein den, irailaren 1eko datarekin, izen hau duen kontusailaren kontabilitate- (betetze-) egoera: Naturguneak babesteko Hitzarmena, 11550-0 lerro-zenbakia.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 26a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako zonarako Nafarroako Gobernuak dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako zonarako Nafarroako Gobernuak dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Gizartearen erantzunaren eta aurkezturiko alegazioen ondoren (211, Errioxako Aldizkari Ofizialean bertan argitaraturikoaren arabera), Errioxako Gobernuak hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegi batentzat Agoncillo-ko dermioan aurreikusiriko kokalekua aldatzea erabaki du, horren ordez Galilea-ko dermiora lekualdatuz.

Joan zen otsailaren 17an jadanik galdetu nion Nafarroako Gobernuari hondakindegi-proiektuari buruz eta honek inguruko Nafarroako zonetan eragiten zuen kezkaz, urduri baitziren lixibiatuak Ebrora iragazteak eta abarrek ekarriko lituzketen ondorio negatiboengatik.

Kokaleku-aldaketa onestean, zonan dagoen kezka justifikatu egiten da, partzialki behintzat.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

1.- Zer jarduketa burutzen ari den edo burutzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hondakin toxiko eta arriskutsuen hondakindegientzat hautatu den kokalekutik -alegia, Galilea-ko dermiotik-hurbil bizi diren Nafarroako biztanleen interesak zaintzeko.

2.- Ea Nafarroako Gobernua aurkeztu zen hondakindegia Agoncillo-n kokatzeko aurreko proiektuan, eta zer jarduketa burutu zituen honen inguruan.

3.- Zer-nolako neurri hartzeko prest dagoen Nafarroako Gobernua, horretarako unea iristen baldin bada, aipaturiko proiektuak eragin litzakeen ondorio negatiboek kalteturiko Nafarroako zonako biztanleen interesak (ekonomikoak, nekazaritza-arlokoak eta abar) zein osasuna zaintzeko.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 27a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Dokumentalista izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia onestea.

**2.-** Deialdia Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko uztailaren 2an.

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía.

### **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa**

**1. oinarria.-** Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bitartez, txanda irekian, betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaia Biltzarreko nomina eta plantilako funtzionarioa izanen da, eta indarra duten xedapenek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat ezarritako eskubide eta betebeharrak izango ditu eta, zehazki, lanpostu horri ezarri zaizkion hurrengo zereginak izango ditu: dokumentazioa edo informazioa sortu, batu, bildu, aztertu, berreskuratu eta zabaltea; informazioa, agertzen den euskarri ezberdinetan, erabiltzeko teknologiak garatu eta kudeatzea; artxiboak eta liburutegiak katalogatu eta kudeatzea; eta Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuburuak eska diezazkiokeen antzeko zereginak, dokumentalistaren jakintza arlokoak baldin badira. Beste aldetik bere lana betetzeko beharrezko edo egoki izan daitezkeen berrikuntza teknologiko guztiak onartu, ikasi, erabili eta praktikan jarri beharko ditu, haren nagusiek ezarritako irizpideen arabera.

1.3. Lanpostua egungo lanpostuen sailkapenean B mailari dagozkion lansariez hornituko da, eta bateraezintasuneko osagarria gehituko zaio, % 35, Nafarroako Parlamentuko indarreko plantila organikoarekin bat.

1.4. Hautapen probak gainditu eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatu ondoren, Nafarroako Parlamentuan sartu eta funtzionario izaera hartuko duen izangaia Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuko da eta alta emanen zaio, aipatu araubideak aurreikusitakoaren babesean.

Baldin eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatzen den funtzionarioa eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzuko langileen Estatutuak eta gainerako xedapen osagarriak aipatzen duten hartan, afiliaturik badago, aukeran izanen du bertan segitzea edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldeko ordutegian egingen da, baina Parlamentuko organo eskudunek edozein unetan alda dezakete.

**2. oinarria.-** Hautagaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nazionalitate espainiarra izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Diplomatu, injineru edo arkitekto tekniko titulua izatea edo ofizialki baliokidetzat jotako tituluren bat izatea, edo eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Aurreko baldintza horiek deialdi honetako zazpigarren oinarriak ezarri epe eta moduan

egiaztatu beharko ditu lanpostua ateratzen duen izangai onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituztela ulertuko da. Halaber, izangaiek 2. oinarriko baldintzak hautapen prozedura osoan zehar bete beharko dituzte, eta ulertuko da prozedura hori izendapena egiten den unean bukatzen dela.

### 3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta, 12, 31002 - Iruña) aurkeztu beharko dira, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Eskabide horiek deialdi honetako I. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan beharko dira; eredu hori Nafarroako Parlamentuko Erregistro Ofizialean (Arrieta kalea, 12, 3. solairuan) eskuratuko zaie izangaiei. Eskabide horietan izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta.

3.2. Minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar ditzaketen egokitzapenak eskatu ahaliko dituzte, horren beharrik izanez gero. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute zein ezintasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

### 4. oinarria.- Izangaien onarpena. Erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.2. Izangai baztertuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun baliodunen epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko.

**5. oinarria.-** Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Hona hemen Epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua: Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria, edo Biltzarreko Mahaiak izendatzen duena.

Ordezko mahaiburua: Biltzarreko beste mahai-kide bat.

Mahaikidea: África García de la Oliva andrea, Senatuko Dokumentazio Autonomikoaren atalburua.

Ordezko mahaikidea: Marta Cadarso Santallalla andrea, Senatuko Dokumentazio Zerbitzuko dokumentalista.

Mahaikidea: Juan Francisco Elizari Huarte jauna, Nafarroako Liburutegi Nagusiko burua.

Ordezko mahaikidea: Carmen Josué Simoneña andrea, Nafarroako Gobernu Liburuaren eta Liburutegien atalburua.

Mahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarrak B mailako funtzionarioen artetik izendatutako bat.

Ordezko mahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarrak B mailako funtzionarioen artetik izendatutako bat.

Mahaikide idazkaria, hitz eta botuarekin: Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza, Nafarroako Parlamentuko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitziburua.

Ordezko idazkaria, hitz eta botuarekin: Pablo Díez Lago, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Mahaiari, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe. Organo kolegiatuaren eraketak balioa izateko, mahaiburua eta idazkaria, edo horien ordezkioak, eta kideen erdiak bederen elkartu beharko dira.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahaliko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate tekniko-



an aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza Epaimahaiari.

5.6. Ariketa guztiak baloratzeko erabateko adostasunik ez badago, Epaimahaiak kide guztien kalifikazio partzialak batuko ditu eta gero kide kopuruarekin zatituko. Emandako puntuazioen artean ehuneko berrogeiko edo gehiagoko alde badago, aintzat hartuta bakoitzak eman dezakeen gehieneko puntuazioa, puntuaziorik altuena eta baxuena automatikoki baztertuko dira eta gainerako kalifikazioen batezbesteko puntuazioa aterako da.

5.7. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaiak ebartziko ditu.

## 6. oinarria.- Oposizio-lehiaketaren garapena.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan egingen da, lehenbizi lehiaketaldia eta gero oposizioaldia, oinarri hauetan adierazitako moduan.

6.2. Oposizio-lehiaketa 1998ko urtarrilean hasiko da. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan probak hasiko diren tokia, data eta ordua zehaztuko dira. Gero, Epaimahaiak aditzera emanen ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arauzko moduan.

### 6.3. Lehiaketaldia.

6.3.1. Alegatutako merezimenduak deialdi honen II. Eranskinean azaldu baremoari jarraituz puntuatuko dira.

6.3.2. Epaimahaiak edozein unetan eska ditzake lehiatzaileek alegatutako merezimenduei buruzko azalpenak eta datu osagarriak.

Epaimahaiak arrazoiz baloratuko ditu baremoaren atal bakoitzerako egoki irizten dituen izangaia-merezimenduak, baina inoiz ere ezin izanen du zenbatu alegatu gabeko edo agiri bidez egiaztatu gabeko merezimendurik. Inoiz ere ezin izanen zaio izangai bati eman atal batean, atal bakoitzerako seinlatu diren puntuak baino gehiago.

6.3.3. Lehiaketaldia bukatu ondoren eta oposizioaldia hasi baino lehen, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarriko dira aldi horretan izangaiek lortu dituzten puntuazioak. Lehiaketaldian ateratako puntuazioa, izangaiek oposizioaldiko probetan ateratako puntuazioari gehituko zaio. Horrela lortuko da oposizio-lehiaketaren guztirako puntuazioa.

### 6.4. Oposizioaldia.

6.4.1. Oposizioaldiak ondoko ariketak izanen ditu:

#### 1) Lehenbiziko ariketa.

Idatzizko azterketa bat izanen da. Bertan III. Eranskineko gai zerrendatik zozketan ateratako

hiru gai azaldu beharko dituzte izangaiek. Azterketa horrek bi atal izanen ditu:

a) I. ataleko bi gairi erantzutea, gehienez ere bi ordutan.

b) II. ataleko gai bati erantzutea, ordubetez.

Izangaiek jendaurrean irakurriko dute ariketa eta Epaimahaiak nahi dituen galderak edo ohar-rrak egin ahal izanen ditu ariketari buruz.

Ariketaren guztirako puntuazioa 30 puntu izanen da, 20 puntu I. atalari buruzkoak (10 gai bakoitzeko) eta 10 II. atalari. Ariketa gainditzeko 15 puntu edo gehiago lortu beharko dira, baina hiru gaietan bosna puntu edo gehiago lortu beharko dira.

#### 2) Bigarren ariketa.

Ondoko proba praktikoak egin beharko dira.

a) Legegintzako testu bati buruzko dokumentazio dossier bat burutzea, ordu eta erdiz.

b) Aldizkari artikulua batzuen laburpen deskribatzaileak edo "abstract"ak burutzea, eta haie indizatzea Eurovoc thesaurusaren arabera, bi orduz. Aukerako atala burutu nahi bada, hiru ordutara zabaldu daiteke epe hori:

– Bat gaztelaniaz.

– Bat euskaraz (aukeran)

– Bat atzerriko hizkuntza batean. Aukeran emanen dira ingelesa, frantsesa, alemaniera eta italiera.

c) Bi monografia katalogatu eta sailkatzea, bat aldizkaria izanen da eta bestea administrazio espediente bat. Bi ordu emanen dira.

Ariketaren guztirako emaitza 45 puntu izanen da, alegia, 15 puntu atal bakoitzeko. Ariketa gainditzeko 20 puntu edo gehiago lortu beharko dira, baina a) eta c) ataletan 7,5na puntu edo gehiago lortu beharko dira eta b) atalean 5 puntu edo gehiago. b) atalean, hiru laburpenetako bakoitzarengatik gehienez ere 5 puntu lortu daitezke, eta atala gainditzeko izangaiek 2,5na puntu edo gehiago lortu beharko ditu derrigorrezko bi laburpenetan.

6.4.2. Epaimahaiak ariketak kalifikatzeko 5.6. oinarrian ezarritakoari jarraituko dio.

6.4.3. Ariketa bakoitza bukatutakoan, Epaimahaiak jendaurrean jarriko du Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean probak gainditu dituzten izangaien zerrenda haien kalifikazioekin eta, halaber, oposizioko hurrengo ariketa zein toki, egun eta ordutan egingen den, 48 ordu lehenagotik bederen.

6.4.4. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo Epaimahaiak nahikoa dela iritziko dion beste dokumenturen bat aldean dutela agertu beharko dute, eta oposiziotik baztertuta geratuko dira agertzen ez diren izangaiek.



6.4.5. Hautapen probak egiteko, eskaera egiten duten minusbaliatuentzat, denbora eta baliabide aldeko egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

**7. oinarria.-** Probak gainditzen dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean probak gainditu dituztenen zerrenda emanen du aditzera, ateratako puntuazioaren arabera, izangai bakoitzak lehiaketaldian eta oposizioaldian lortu dituen kalifikazioak batuta, eta Parlamentuko Mahaiari igorriko dio puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren aldeko izendapen proposamena.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barrenean, proposatutako izangaiak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu Biltzarreko Erregistro Orokorrean:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna erakusten dituen agiri baliokidea.

b) Deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak luzatutako txostena, karguari dagozkion eginkizunak betetzea galarazten duen eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Minusbaliaren bat alegatu duten izangaiek, gainera, hura deialdiaren xedeko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

d) Zinpeko aitorpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik ez dela berezia izan dioena.

e) Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

7.3. Aipatu epearen barrenean, eta behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak deusezturik geratuko dira, eskabidearen faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko idazatian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak probak gainditu dituztenen zerrendan, 7.1 idazatian aipatutakoan, hurrengo den izangaiarekin beteko du baja, eta horrekin ere aurreko idazatietan adierazitako moduan jokatuko da.

**8. oinarria.-** Izendapena eta lanpostua hartzea.

8.1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, ebazpenaren bitartez, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatuko du, dokumentalista lanpostu baterako, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaia.

8.2. Izendapen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendatutako izangaiak, izendapena jakinarazi eta ondoko hilabetean hartu beharko du lanpostuaren jabetza. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez badu, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izaera hartzeko eskubide guztiak galduko ditu. Hala bada, 7.4 idazatian ezarritakoari jarraituko zaio.

**9. oinarria.-** Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, bere oinarri eta egintzen aurka eta izendapen-erabakiaren aurka, indarra duten araei jarraituz, administrazioarekiko errekurtsua paratu ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian, aurkatu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazten denetik hasita, bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aplikatzeko gainerako egintzen aurka, errekurtsu arrunta paratu ahalko da Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren aurrean, argitaratu edo jakinarazi eta hilabeteko epean. Errekurtsu arruntaren ebazpenaren aurka, administrazioarekiko errekurtsua paratu ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusian.

## I. ERANSKINA ESKABIDE EREDUA

..... J/A.k,  
adinez nagusi, ..... Nortasun Agiri Nazional  
leko zenbakia dituen (edo nortasun agiri baliokide bat), 19.....(e)ko .....(a)ren ....(e)an  
jaioa, .....(e)koa, .....(e)ko  
nazionalitatea duena, helbidea .....n,  
..... kalean, .... zk.an,  
.... pisan, ..... posta kodea, eta .....  
telefono zk.a dituenak.

Zure aurrean agertu eta honako hau dio:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartua izatea eskatzen duela.

Karguan aritzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela.

Ez duela indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela disziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan, ezta desgaitua ere eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titulazioaren jabe dela.

Eskabideak aurkezteko emandako epea amaitzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

Baduela/ez duela ezintasunik, eta horregatik eskatzen duela ondoko egokitzapena, adierazitako arrazoiengatik. (Beste orrialde batean zehaztuko dira ezintasunaren nondik-norakoak eta eskatzen diren egokitzapenak).

Azaldutakoaren ondorioz,

Hauxe ESKATZEN DU: Eskabide hau onartu eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartua izatea.

Iruñean, 199....(e)ko ..... (a)ren .... (e)an

## II. ERANSKINA

### MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BAREMOA

1.- Ikasketa espedienteak: gehienez 6 puntu.

a) Oposizio-lehiaketa honetan parte hartzeko bide ematen duen unibertsitate titulua:

– Batezbesteko oso ongi emaitza espedientean, Diplomaturako ikasgai eta kredituen multzoan: 0,5 puntu.

– Espedientean, Diplomaturako ikasgai eta kredituen multzoan, bikain kalifikazioen gehiengo absolutua: puntu bat.

– Batezbesteko oso ongi emaitza espedientean, Lizenziaturako ikasgai eta kredituen multzoan: puntu bat.

– Espedientean Lizenziaturako ikasgai eta kredituen multzoan bikain kalifikazioen gehiengo absolutua: 2 puntu.

– Gai kalifikazioa doktore graduan: 1,5 puntu.

– Gai cum laude kalifikazioa doktore graduan: 2 puntu.

Lizenziaturaren balorazioa bateraezina da ikasketa beretako Diplomaturaren balorazioarekin, hain zuzen ere lehenbizikoak bigarrena hartzen duelako barne.

Titulazioa Bibliotekonomia eta Dokumentaziokoa bada, aurreko puntuazioak bikoiztu egingen dira.

b) Beste unibertsitate tituluak:

– Batezbesteko oso ongi emaitza espedientean, Diplomaturako ikasgai eta kredituen multzoan: 0,25 puntu.

– Espedientean Diplomaturako ikasgai eta kredituen multzoan, bikain kalifikazioen gehiengo absolutua: 0,5 puntu.

– Batezbesteko oso ongi emaitza espedientean, Lizenziaturako ikasgai eta kredituen multzoan: 0,5 puntu.

– Espedientean, Lizenziaturako ikasgai eta kredituen multzoan, bikain kalifikazioen gehiengo absolutua: puntu bat.

– Gai cum laude kalifikazioa doktore graduan: puntu bat.

– Dokumentazio, Bibliotekonomia eta Artxiboe-tan unibertsitate masterrak: gehienez puntu bat.

Lizenziaturaren balorazioa bateraezina da ikasketa beretako Diplomaturaren balorazioarekin, hain zuzen ere lehenbizikoak bigarrena hartzen duelako barne.

Titulazioa Bibliotekonomia eta Dokumentaziokoa bada, aurreko puntuazioak bikoiztu egingen dira, unibertsitateko masterretan salbu.

2. Dokumentalista edo pareko lanetan izandako lanbide-esperientzia: gehienez 6 puntu.

a) Dokumentalista lana administrazio publiko batean, estatutupeko edo kontratupeko harremanarekin, horretarako izangaiari, gutxienez, unibertsitateko diplomatura eskatu bazitzaion: puntu bat urtebeteko eta 0,08 puntu hilabeteko.

b) Dokumentalista lana enpresa edo erakunde pribatu batean, estatutupeko edo kontratupeko harremanarekin, horretarako izangaiari, gutxienez, unibertsitateko diplomatura eskatu bazitzaion: 0,75 puntu urtebeteko eta 0,06 puntu hilabeteko.

c) Dokumentazio zentro, artxibo edo liburutegietako lana administrazio publiko batean, estatutupeko edo kontratupeko harremanarekin, horretarako izangaiari, gutxienez, unibertsitateko diplomatura eskatu bazitzaion: 0,50 puntu urtebeteko eta 0,04 puntu hilabeteko.

d) Dokumentazio zentro, artxibo edo liburutegietako lana erakunde edo enpresa pribatu batean, estatutupeko edo kontratupeko harremanarekin, horretarako izangaiari, gutxienez, unibertsitateko diplomatura eskatu bazitzaion: 0,25 puntu urtebeteko eta 0,02 puntu hilabeteko.

e) Dokumentazio zentro, artxibo eta liburutegietan aritzeko beka: gehienez ere guztira 0,50 puntura arte, aintzat hartuta beken iraupena, beka lortzeko eskatutako baldintzak eta beka horiek eman dituzten zentrozen garrantzia.

3. Argitalpenak: 3 puntura arte.

Dokumentazio edo informazio zientifikoari buruzkoak: gehienez 2 puntu.

b) Bibliotekonomia eta artxibistikari buruzkoak: gehienez puntu bat.

### III. ERANSKINA PROGRAMA

#### I. atala

1. Dokumentazio edo informazio zientifikoa: sorrera, kontzeptua eta beste zientziekin duen erlazioa. Dokumentua: kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia.

2. Dokumentazio zentroak: kontzeptua, eginkizunak, antolamendua. Mota horretako erakunde nagusiak, nazionalak eta nazioartekoak.

3. Dokumentuen hautapena: iturrien tipologia eta kontsulta lanak.

4. Dokumentuen analisia: indizazioa.

5. Dokumentuen analisia: laburpena edo "abstract"a. Haiek burutzeko modu eta arauak.

6. Dokumentazio lengoaiak: thesaurusak.

7. Informazioa berreskuratzea eta banatzea. Kontzeptua, bilatzeko estrategiak, zerbitzu eta produktu motak.

8. Dokumentazioko datu baseak. CD-ROMa eta lineako sarbidea. Datutegi juridikoak eta legebiltzarretakoak.

9. Teledokumentazioa. Internet.

10. Administrazioiko eta epailetzako dokumentazioa Espainian: Estatu eta autonomia erkidegoak.

11. Legebiltzarretako dokumentazioa Europan eta Ipar Amerikan.

12. Legebiltzarretako dokumentazioa Espainian: Gorte Nagusiak eta autonomia erkidegoetako Legebiltzarrak.

13. Dokumentazioa Europako Batasunean eta haren erakundeetan.

14. Dokumentuen sarbidea. Arauak. Arazoak. Sekretu ofizialak. Espainiako legebiltzar-erakundeetako buruzko aipamen berezia.

15. Azalpen bibliografikoa eta teknologia berriak. ISBD, katalogazio arauak, MARC formatua. Saillapen bibliografikorako sistemak.

16. Liburutegien kudeaketa: baliabide ekonomikoak, instalazioak, giza baliabideak, bildumak egitea, kontserbazio lanak, automatizazioa eta teknologia berriak.

17. Liburutegiak erabiltzaileari ematen dizkion zerbitzuak: aretoko sarbidea, mailegua, informazio eta erreferentzia bibliografikoak, dokumentua eskuratzeko, informazioaren zabalkunde selektiboa, erabiltzaileen prestakuntza, liburutegiaren zabalpena.

18. Liburutegien arteko lankidetzak eta liburutegien sareak: Espainiako eta Europako egoera.

19. Bibliografia orokorrak eta berezituak. Bibliografia juridikoak eta legebiltzarretakoak.

20. Espainiako liburutegien sistemak. Espainiako eta Nafarroako liburutegi nagusiak.

21. Legebiltzarretako liburutegiak Europan eta Espainian.

22. Artxiboak: kontzeptua, eginkizunak eta tipologia. Dokumentuen kudeaketarako ereduak Ipar Amerikan eta Europan.

23. Dokumentuen euskarria: paperetik hasi eta teknologia berriek eskaintzen dituzten produktuetara.

24. Dokumentazioa kontserbatzea.

25. Dokumentuen sailkapena eta antolamendua artxiboetan.

26. Artxiboetako deskribapen-mailak: gidak, inbentarioak, katalogoak eta gainerako tresnak. Informatika tekniken aplikazioa.

27. Espainiako artxibo administratiboen antolamendua eta kudeaketa.

28. Estatu mailako eta nazioarteko artxiboen politika. Aipatu politikaren erakunde arduradunak, egoerak eta inguruabarrak.

29. Espainiako artxiboen sistemak. Espainiako eta Nafarroako artxibo nagusiak.

30. Espainiako legebiltzarretako artxiboak.

#### II. Atala

1. Nafarroako foru eraentzaren izaera: oinarri historikoak eta gaurko konstituzio sisteman nola sartu zen. Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa.

2. Nafarroako eskumenen sistema.

3. Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu eta Administrazioa.

4. Parlamentarismoaren ibilbide historikoa Nafarroan. Nafarroako Gorteak Erdi Aroan eta Aro Modernoan. Haiek aztertzeke iturriak.

5. Nafarroako Parlamentua: izaera, eskurantzak, antolamendua, funtzionamendua. Kontuen Ganbara, Parlamentuaren menpeko organo gisa.

6. Nafarroako Parlamentuaren legegintzazko prozedurak.

7. Nafarroako Parlamentuaren kontrol eta zuzendaritza politikoko eginkizuna.

8. Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren antolamendua. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari buruzko aipamen berezia.

9. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak.

10. 1978ko Espainiako Konstituzioa. Sistema politikoari eusten dioten oinarriak. Testu konstituzionalaren egitura eta sistematika.

11. Espainiako legegintzazko boterea: Gorte Nagusiak, Diputatuen Kongresua eta Senatua.

12. Gobernuak. Estatuako Administrazio Orokorren antolamendua eta funtzionamendua.

13. Guztiendako administrazio prozedura.

14. Administrazio publikoen kontratuak Espainian eta Nafarroan.

15. Estatuaren lurralde antolamendua. Autonomia Erkidegoak.

16. Ondare historiko kulturalari buruzko Espainiako legegintza, eta bereziki, dokumentazio eta bibliografi ondareari buruzkoa.

## Nafarroako Gobernuak 1997ko maiatzean Nafarroako Parlamentura igorritako Erabakiak eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 9an egindako bilkuran, Kontuen Ganbarari txosten bat eskatzea erabaki zuen, aurrekontu aldaketak, Nafarroako Gobernuak 1997ko maiatzean Nafarroako Parlamentura igorri zituen Erabakiak eta Ebazpenen bidez gauzatuak, legezko ote diren aztertzeko.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Kontuen Ganbarak Erabakiak eta Ebazpen haiei buruz eman duen txostenaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen, baita txosten hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere.

Iruñean, 1997 irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

“Ikusirik Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuak eginiko eskaria, Sindikatuen erreprografia zerbitzuaren -lehen Nafarroako Gobernuak zuzenean eskaintzen zuena- kostua finantzatzeko asmoz “Sindikatuen funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuetarako dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusaila, 01795-8 lerroa, 2.000.000 pezetako kopuruan gaitzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izango ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-transferentzia hau egitea: 2.000.000

pezetakoa, “Kontseilu Ekonomiko eta Sozialarentzako Transferentziak, bere funtzionamendurako” 11000-4810-6111 aurrekontu-kontusailetik, 10000 proiektutik, 05870-0 lerrotik, “Sindikatuen funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuetarako dirulaguntza” 04000-4810-1221 aurrekontu-kontusailera, 20000 proiektura, 01795-8 lerroa.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuari, Ekonomia eta Ogasun eta Lehendakari eta Barne Departamentuei, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuetako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 21a.

Barne Eraentza Zerbitzuko Zuzendaria: Amador García Amatriain

**“115/1997 EBAZPENA,** 1997ko apirilaren 28koa, Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiarena, “Azterketak eta inbertsioen plangintza” 10. Programako kontusail batzuen arteko transferentzia bat baimentzen duena.

Ikusirik Afera Ekonomikoen eta Araubide Administrazioaren Atalaren txostena, 1997ko gastuetarako Aurrekontuan Programa bereko kontusailen arteko transferentzia bat proposatzen duena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua arabera.

Horregatik eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Kontseilariaren irailaren 26ko 446/1996 Foru Aginduaren bidez delegaturiko ahalmenen indarrez,

EBATZI DUT:

**1.-** 1997ko gastuetarako Aurrekontuan “Azterketak eta inbertsioen plangintza” 10. Programako kontusail batzuen artean honako transferentzia hau egitea:



Gutxitu beharreko kontusaila		Zenbatekoa
91120-6020-3131	“Haur eta gazteentzako zentro berekietarako	
31180-5 lerroa	inbertxioak”	7.550.000
Gehitu beharreko kontusaila		Zenbatekoa
91100-2020-3111		
31125-2 lerroa,	“Alogerak”	4.050.000
91100-2269-3111		
31126-0 lerroa,	“Askotariko gastuak”	2.000.000
91100-2280-3111	“Energia elktrikoa eta ura”	
31127-9		1.500.000

**2.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari eta Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalari jakinaraztea, egoki diren ondorioetarako.

Iruñea, 1997ko apirilaren 28a

Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusia: José Luis Alli Fernández”

“Ikusirik Ekonomia eta Herrilan Zuzendaritza Nagusiek aurrekontuak aldatzeko eginiko eskaera, kontusail jakin bat behar adina horni dadin; hain zuzen, Iruztundik Gipuzkoarekiko mugarainoko Autobiaren obren ondorioz kalteurik suertatu ziren Areso eta Azpirozko hainbat biztanlek egin zituzten erreklamazioen ondorioz izapidaturiko ondare erantzukizuneko prozeduran ezarri ziren obligazio ekonomikoei aurre egiteko kontusaila.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 48. artikulua arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, Departamentu ezberdinetako zerbitzu eta organismo autonomoei dagozkien eta kapitulu ekonomiko berekoak diren kredituen transferentziak baimendu ahal izango ditu, ukituriko programen xedeak aldatzen ez diren bitartean. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DU:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-transferentzia hau egitea: 2.878.385 pezetakoa, “Ura, gasa eta elektrizitatea” 61200-2280-5135 aurrekontu-kontusailatik, 21000 proiektutik, 24720-1 lerrotik, “Kalteordainketa, ondare erantzukizunagatik” 11300-2339-6127 aurrekontu-kontusailera, 14002 proiektura, 06940-0 lerroa.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuari, Ekonomia eta Ogasun eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuei, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuetako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 21a.

Idazkari Nagusia: Joaquín Gortari Unanua.”

**“159/1997 EBAZPENA,** apirilaren 3koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentukoa den Langileri Zerbitzuaren eskaera, “Aurreraturiko Jubilazioaren ondoriozko kalteordainketa 259/1988 Foru Dekretua” kontusailean, 02030-4 lerroan, 9.278.737 pezetako kreditu-gehikuntza egin dadin, “Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa”, kontusaileko, 34695-9 lerroko sarrera haundiagoen kargura.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1/1997 Foru Legeak 4. artikuluan, 1. puntuan, e) hizkian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-gehikuntza hau egitea: 9.278.737 pezetakoa, “Aurreraturiko Jubilazioaren ondoriozko kalteordainketa 259/1988 Foru Dekretua” 04120-1614-3141 aurrekontu-kontusailean, 20002 proiektuan, 02030-4 lerroan, “Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izeneko 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko sarrera haundiagoen kargura finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari (Langileri Zerbitzua), Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 3a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”.

**“160/1997 EBAZPENA,** apirilaren 3koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Osasun Departamentukoa den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eskaera, “Klinika Saiakuntzak” gastu-kontusail berrian, 17885-4 lerroan, 672.800 pezetako kreditu-sorkuntza proposatzeko, “Saiakuntza klinikoetarako transferentziak” sarrera-kontusail berrian, 36785-9 lerroan, aipaturiko kopuruan izandako sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

## EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-sorkuntza hau egitea: 672.800 pezetakoa, "Klinika Saiakuntzak" 52230-2269-4121 gastu-kontusail berrian, 41001 proiektuan, 17885-4 lerroan, "Klinika saiakuntzetarako transferentziak" 52230-4700 kontusail berrian, 41001 proiektuan, 36785-9 lerroan kopuru horretan eginiko sarrera berrien kargura finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Osasun Departamentuari (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzailletza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 3a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez".

**"162/1997 EBAZPENA,** apirilaren 4koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Barneko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak, Lehendakaritza eta Barne Departamentukoak, eginiko eskaera, "Dirulaguntzak" izeneko kontusailean, 04200-6 lerroan, 12.800.000 pezetako kreditu-gehikuntza eskatzeko, "Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko kontusaileko, 34695-9 lerroko, sarrera haundiagoen kargura.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeak 4. artikuluan, 1. puntuan, i) hizkian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

## EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-gehikuntza hau egitea: 12.800.000 pezetakoa, "Dirulaguntzak" 02400-4809-2211 kontusailean, 50002 proiektuan, 04200-6 lerroan; "Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko sarrera haundiagoen kargura finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari (Barneko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzua), Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzailletza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 4a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez."

**"182/1997 EBAZPENA,** apirilaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Toki Administrazioko Departamentuak 693.876.977 pezetako kreditu-gehikuntza eskatu du "Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea" deituriko gastu-kontusailean, 92006-2 lerroan, "Kohesio Fondoak" deituriko kontusailean, 35530-3 lerroan, aipaturiko kopuruan izandako sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeak 4. artikuluan, 3. puntuan, b) hizkian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan eskumenak erabiliz,

## EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango gastu-aurrekontuan 693.876.977 pezetako kreditu-gehikuntza egitea, "Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea" 21300-7600-4411 gastu-kontusailean, 13001 proiektuan, 92006-2 lerroan, "Kohesio Fondoak" deituriko 21330-7901 kontusaileko, 13001 proiektuko, 35530-3 lerroko kopuru horretako diru-sarrera haundiagoen kargura.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Toki Administrazioko Departamentuari, Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzailletza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 16a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez".

**"186/1997 EBAZPENA,** apirilaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-gehikuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Lan Harremanen Zerbitzuaren eskaera, "Epaien egikaritza" izeneko kontusailean, 01690-0 lerroan, 2.310.074 pezetako kreditu-gehikuntza egin dadin, "Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko kontusaileko, 34695-9 lerroko, sarrera haundiagoen kargura.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeak 4. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren



ren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-gehikuntza hau egitea: 2.310.074 pezetakoa, "Epaien egikaritzea" 04000-1709-1226 kontusailean, 20000 proiektuan, 01690-0 lerroan; "Aurreragoko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 34695-9 lerroko sarrera haundiagoen kargura finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritzea eta Barne Departamentuari (Lan Harremanen Zerbitzua), Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzailetzea delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 16a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez".

"**188/1997 EBAZPENA**, apirilaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Industri, Merkataritzea, Turismo eta Lan Departamentuaren eskaera, "Enpresentzako Gizarte Segurantzaren bidezko Transferentziak aurreraturiko jubilazioetarako" izeneko kontusailean, 30330-6 lerroan, 63.358.217 pezetako kreditu-gehikuntza egin dadin, berau "Aurreraturiko Jubilazioetarako Transferentziak" kontusaileko, 38570-9 lerroko sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izango dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin izaeragatik hauen helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerek. Aipaturiko artikuluan, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena. Aurrekoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-sorkuntza hau egitea: 63.358.217 pezetakoa, "Enpresentzako Gizarte Segurantzaren bidezko Transferentziak aurreraturiko jubilazioetarako" 83200-4709-3221 kontusailean, 60001 proiektuan, 30330-6 lerroan; "Aurreraturiko

jubilazioetarako transferentziak" 83200-4000 kontusaileko, 60001 proiektuko, 38570-9 lerroko sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Industri, Merkataritzea, Turismo eta Lan Departamentuari, Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzailetzea delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 17a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez".

"**189/1997 EBAZPENA**, apirilaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-sorkuntzaren ondoriozko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik Nekazaritzea, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eskaera, "Mahastiaren eta ardoaren erakusketa-zentroaren Birgaitzea. 5b P.O. Objektiboa" izeneko kontusailean, 97073-6 lerroan, 17.000.000 pezetako kreditu-gehikuntza egin dadin, berau "Mahastiaren eta ardoaren erakusketa-zentroaren baterako finantziazioa eta birgaitzea 5b P.O. Objektiboa" kontusaileko, 37780-3 lerroko sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) hizkian xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izango dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin izaeragatik hauen helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-sarrerek. Aipaturiko artikuluan, 2. puntuan, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariari ematen dio aurrekontu-aldaketa hauek baimentzeko eskumena. Aurrekoaren indarrez, eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-sorkuntza hau egitea: 17.000.000 pezetakoa, "Mahastiaren eta ardoaren erakusketa-zentroaren Birgaitzea. 5b P.O. Objektiboa" 73000-6021-5424 kontusailean, 10003 proiektuan, 97073-6 lerroan; "Mahastiaren eta ardoaren erakusketa-zentroaren baterako finantziazioa eta birgaitzea 5b P.O. Objektiboa" 73000-7902 kontusaileko, 10003 proiektuko, 37780-3 lerroko sarrera haundiagoekin finantzatzuz.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritzea, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Aurrekontu eta Kontabilitate

Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 17a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”.

“**219/1997 EBAZPENA**, apirilaren 29koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiarena, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentukoak, 1.000.000 pezeta-ko kreditu-transferentzia bat eskatu du, “Etxebizitza-parkearen Konponketa” 31210-6000-4311 kontusailetik, 20000 proiektutik, 10880-5 lerrotik, “Ekipo informatikoen erosketa” 31320-6060-4421 kontusailera, 00000 proiektura, 10550-4 lerroa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak 47. artikuluan xedatzen duenez, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko eta Departamentu bereko programa ezberdinetakoak diren kredituen arteko transferentziak baimendu ahal izango ditu, baldin eta programa horien helburuak aldatzen ez badituzte. Honen indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez delegatu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**Lehena.** 1997rako indarreango Aurrekontuan honako kreditu-transferentzia hau egitea,: 1.000.000 pezetakoa, “Etxebizitza-parkearen Konponketa” 31210-6000-4311 kontusailetik, 20000 proiektutik, 10880-5 lerrotik, “Ekipo informatikoen erosketa” 31320-6060-4421 kontusailera, 00000 proiektura, 10550-4 lerroa.

**Bigarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari (Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzua), Aurrekontu eta Kontabilitate Atalei eta aipaturiko Departamentuko Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñea, 1997ko apirilaren 29a.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”.

“**244/1997 EBAZPENA**, apirilaren 30ekoa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiarena, 1997ko aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik 1997ko Aurrekontuko hainbat kontusailetan beste kontusail batetik egindako transferen-

tzia bidez kreditu-gehikuntza egiteko beharra, eta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikulua arabera, Kontseilariak, beren Departamentuen eskumen-eremuaren baitan, artikulu horretan zehazten diren kreditu-transferentziak baimendu ditzaketela kontutan edukiz.

Ikusirik, halaber, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lanean Ekonomi eta Ogasuneko kontuhartzaitzaile delegatuak eginiko aldeko txostena.

Horren indarrez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren abenduaren 2ko Foru Aginduaren bitartez delegatu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

**1.-** 1997ko Aurrekontuan, honako kontabilitate-idazpena sortarazten duen kreditu-transferentzia egitea:

a) Kargua 1.000.000 pezeta.  
82210-7459-7512; 30200-8 lerroa.

b) Abonua 1.000.000 pezeta.  
82210-4600-7512; 30100-1 lerroa.

**2.-** Ebazpen hau Turismo Zerbitzuari, Nafarroako Parlamentuari eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan Ekonomi eta Ogasun Departamentuak daukan Kontuhartzaitzaile Delegatuari jakinaraztea, egoki diren ondorioetarako.

Iruñea, 1997ko apirilaren 30a.

Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusia: Angel Sola Jimeno.

## KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 9ean harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Aurtengo maiatzean igorri zizkieten Parlamentuari Nafarroako Gobernuaren hainbat Erabakik eta Departamentuko Zuzendari Nagusien hainbat Ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu gehikuntza, transferentzia eta sorkuntza dira, indarra duen legeriarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45. artikulutik 53.era bitartekoek ezarritakoarekin.

Iruñean, 1997ko abuztuaren 7a

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

---

**H Salla:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **Energia Aurrezteari buruzko Nafarroako Programa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 1997ko ekainaren 30ean hartutako Erabakiaren bidez, hauxe bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan: Energia Aurrezteari buruzko Nafarroako Programa.

Horiek horrela, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat

ERABAKI DA

**Lehena.** Energia Aurrezteari buruzko Nafarroako Programa tramitera onartzea.

**Bigarrena.** Hari buruzko iritzia Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak emango duela xedatzea.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

(Oharra: Programaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorren bulegoan).

---

## **95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** 95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, deitzen den lehen Osoko Bilkuran eztabaidan jartzea, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legeko Lehen Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, xedapen honek ematen baitio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharkako Zergen Erregimen berriari Egokitzeko Akordioak ezartzen duena betearazteko behar diren arauak aldarrikatzeko ahalmena.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko irailaren 2a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n izenpetu zuten Hitzarmen Ekonomikoko 30. artikulua ezartzen du Nafarroako zerga berezien ordainarazpenari dagokionez, Estatu mailan uneoro indarra duten oinarriko printzipioak, arau sustantiboak eta formazkoak izanen direla aplikagarri.

Bestalde, indarra duen Zerga Bereziei buruzko abenduaren 23ko 25/1985 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari behar diren arauak emateko, hain zuzen ere Hitzarmen Ekonomikoa zeharkako zergaren araubide berriari egokitzeko Akordioan ezarritakoa bete dadin. Aipatu Akordioa ulertu behar da Hitzarmen Ekonomiko berriari lotua, izan ere horrek indarra hartzen duen unetik espreski

indarrik gabe uzten baitu egokitzapen hori onesten duen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Zerga Berezien araubide arrunta arautzen duen abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu da Garraibide batzuen gaineko Zerga Bereziaren esparruan, Prever izeneko Programa ezarri baita ibilgailuen parke nazionala berritzeko, eta zerga ordaindu beharrik ez izatea 125 eta 250 cc bitarteko motozikletetara zabaldu da. Beraz, bidezkoa da aipatu xedapen gehigarriaren bigarren lerroaldean agindutakoari jarraikiz, Nafarroan behin-behinekotasunez indarra izanzen duten arauak Foru Dekretu baten bidez ematea. Arau horiek onesten direnetik hamar eguneko epea izanzen da Parlamentura igortzeko, honek behin betikoz onets ditzan.

Horrenbestez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hamazazpiko apirilaren zazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

#### DEKRETATU DUT.-

**Artikulu bakarra.** Ondorioak 1997ko apirilaren 11tik aurrera izan dituela, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen artikulua, ondotik ematen direnak, modu honetan idatzirik geldituko dira:

Lehenbizikoa. 42.1.a).4. artikulua.

“4. 2 edo 3 gurpilekoak, haien zilindrada 250 zentimetro kubikokoa edo gutxiagokoa baldin bada.”

Bigarrena. 47 bis artikulua berria gehitzea.

“47 bis artikulua. Murrizketak kuotan.

1. Ondoko 2 zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituen turismoko ibilgailu erabili baten titularra den subjektu pasiboak eskubide edukiko du bere izenean dagoen turismoko ibilgailu berri baten behin betiko lehen matrikulazioa dela eta eskatu ahal den zergaren kuotan murrizketa bat izateko. Murrizketaren prezioa 80.000 pezetakoa izanzen da, inolaz ere kuota baino handiagoa. Murrizketa honen onuraduna izateko, subjektu pasiboak ondoko zenbakiak aipatzen duen turismoko ibilgailu erabiliarren titularra izana behar du, gutxienez, turismoko ibilgailu berriaren behin betiko lehen matrikulazioa baino urte bat lehenagotik.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen turismoko ibilgailu erabiliar honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Artikulu honek aipatzen duen murrizketa aplikatu dakioken unean, 10 urte edo gehiago edukitzea. Antzinasuna kontatuko da Espainian behin-betiko lehen matrikulazioa egin zitzaion egunetik aurrera.

b) Desegiteko behin betiko baja jaso izana eta baja horretatik turismoko ibilgailu berriaren matrikulazioa arte 6 hilabete baino gehiago iragan ez izana.

3. Aurreko baldintzak turismoko ibilgailu berriaren behin betiko lehen matrikulazioa egitean egiaztatu beharko dira, zerga ordaindu izanaren frogagiriarekin batera turismoko ibilgailu erabiliarren behin betiko baja egiaztatzen duen agiria, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak edo honen menpeko organoek luzatuta, aurkeztuko delarik.”

#### Xedapen Gehigarriak

**Lehenbizikoa.** Aurreko 20/1992 Foru Legearen 47 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuko da soilik artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta 1997ko apirilaren 11tik aurrera desegiteko behin betiko baja hartu duten turismoko ibilgailu erabiliarren kasuan.

Era berean, artikulua horren 1. zenbakian xedatutakoa, urtebeteko epeari dagokiona, ez zaie aplikatuko ibilgailuen titulartasuna 1997ko apirilaren 4koa dutenei.

**Bigarrena.** Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen 47 bis artikuluan aurreikusitako murrizketa eskatzen duten subjektu pasiboek aitorten-likidazioa aurkeztu beharko dute zerga kudeatzen duen atalean, ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duten agiriarekin eta gainerako baldintzak betetzea frogatzen dutenekin batera. Aipatu murrizketa aplikatzea bidezkoa dela egiaztaturik, aitorten egileari itzuliko zaizkio bere aitorten-likidazioaren hiru aleak, behar bezala zigilatuta, ibilgailu berriaren zergaren kuota eta ondorengo matrikulazioa ordain ditzan.

**Hirugarrena.** Dekretu honetan dauden arauak behin-behinekoak dira Nafarroako Parlamentuak onetsi arte.

---

**I Saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

**1997ko uztailean eta abuztuan egindako bilerak****UZTAILA****MAHAIA**

4an.

**MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA**

2, 11, 16 eta 21ean.

**OSOKO BILKURA**

21ean:

– “Unión del Pueblo Navarro”, “Partido Socialista de Navarra”, “Nafarroako Demokraten Elkar-gunea”, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” eta “Eusko Alkartasuna” indar politikoeak 1997ko uztailearen 14an izenpeturiko “Elkarbizitza Bake-tsuaaren aldeko Akordioa” berrestea.

– Adierazpena, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeari dei egiteko ETAk Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan.

**ABUZTUA****MAHAIA**

6, 20 eta 25ean.

**Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko uztailean eta abuztuan sartu diren agirien zerrenda****UZTAILA****1a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: 1996-1997 ikasturtean, derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondokoan, eskolatu diren ikasleentzako guztizko kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak eskaturiko informazioa, 95/96 eta 96/97 ikasturteetan, LHko 1. mailako arlo teknologiko-praktikoaren 2. kurtsoa ematen duten ikas-tetxe pribatuei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bileren eta beste arazo batzuei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina.



– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: 1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Euskarren Kontseiluari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egina.

– Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren idazkia, Foru Parlamentari karguari uko egitea aurkezteko.

– Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroko Hauteskunde Batzordean eginbideak burutzea Xabier Vélez Medrano jauna bere karguaz jabetu dadin.

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia, Nafarroako sozietateen zergari buruzko Legeko hainbat artikuluen aurkako konstituziokontraotasun errekurtsuaren inguruan.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: “Andosillako zeharbidea” izeneko toki-azpiegituraren proiektu teknikoari buruzko informazioa.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko “Laneratze babestuaren programa berezia”ri buruzko informazioa.

– Nafarroako Probintzia Auzientziaren idazkia. Hauxe jakinarazi dute: Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren ordezkari Francisco Javier Vélez Medrano jauna sartuko dela.

### 2a:

– Nafarroako Auzitegi Nagusiaren idazkia. Hauxe jakinarazi dute: soldadutza egiteari uko egiteagatik parlamentario izateko inhabilitaziozigorra ezarri zaiola Iribarren Iriarte jaunari.

### 3a:

– Kontuen Ganbararen idazkia, hauxe jakinarazteko: Sakanako autobiako desjabetze-prozedu-

rei, Olaztiko saihesbideari eta Vianako Printzea Erakundearen ondasun higigarriak kontserbatu eta zaharberritze-prozedurei buruzko txostena egiteko epeak zeintzuk diren.

– M<sup>a</sup> Luisa Ripa Ajona andrearen idazkia. Hauxe jakinarazi du: Mahaiak 1997ko ekainaren 17an harturiko erabakiaren aurkako errekurtsu kontentzioso-administratiboa jarri behar duela.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Su-itzaltze Partzuergoaren 1996ko kudeaketa ekonomiko eta finantzieroari buruzko fiskalizazio txostena.

– Auzitegi Nagusiko Penal Aretorearen idazkia Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunaren zigorra jakinarazten duena.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Gobernuak 1996an zehar “Mandacen” Fundazioari egindako aportazioei buruzko informazioa, Gizarte Ongizate Departamentuak egindakoei buruzkoa, batez ere.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: 90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroak eta Estatuak osatutako Lankidetza Batzordeak 1997ko apirilaren 9an egindako bilkuraren aktari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskaturiko txostena, zerbitzu juridikoek egina, Estatuak Lur Legearen errespetu ezari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruzko galdera, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Oinarritzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbi-



tzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruzko galdera. Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Noaingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Gizarteak eta herritarrak parte hartzeko organo aholkulariei buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– María Cristina Macías Otegui andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze-lehiaketan parte hartzea.

– Rosa Platero Castanera andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze-lehiaketan parte hartzea.

– Lucía Ciordia Ruiz andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat betetzeko lekualdatze-lehiaketan parte hartzea.

#### **4a:**

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Itoizko urtegia eraikitzeari buruzko informazioa.

#### **11a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako kapital transferentziak” izeneko 13620-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako dirulaguntza” izeneko 13530-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Pilota finala dela-eta, Asegarceren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanei buruzko galdera, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Medina-celiren eta Tuteraren arteko errepide zatiko herrilanei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Egiteko dagoen Madril-Tutera autobia dela eta, Gaztela eta Leongo Juntarekiko hitzarmenaren balizko izenpe ofizialari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

#### **14a:**

– Hauteskunde Batzorde Zentralaren idazkia. Harekin batera: Francisco Javier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunaren egiaztagiria.

– Francisco Javier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunaren idazkia, hauxe jakinarazteko: Ezker Abertzalea Parlamentari Taldean sartu nahi duela.

#### **17a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Nafarroako Unibertsitate Publikoa eraikitzea” izeneko 94005-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, energia aurrezteko Nafarroako Programa.

– Madrilgo 27. Instrukzio Epaitegiaren idazkia. Hauxe eskatu du: Florencio Aoiz Monreal jauna Foru Parlamentari dela egiaztatzea.

– Villafrancako Udalaren idazkia. Harekin batera, Miguel Angel Blanco Garridoren erahilketa gaitzesteko erabakia.

– Castellongo Vall d'Uixóko Udalaren idazkia. Harekin batera, valentziera onartzeari buruzko erabakia.

#### **18a:**

– La Majarí elkartearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak har ditzala.

– Marcillako Udalaren idazkia. Harekin batera, Miguel Angel Blanco Garrido bahitu eta hiltzeko mehatxua gaitzesteko erabakia.

#### **21a:**

– Javier Montoya Sanz jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako antzinako orfanatoko helduei buruzko 1741/1997 Ebazpenean hainbat pertsona sartzea.

– Logroñoeko Zerga Agentziaren idazkia, José Labarga Gracia jaunak ordainketaren bat kobratzeke duen galdetzeko.

**23a:**

– Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina.

– Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen gaineko kanpaina garatzeko irudi-enpresa bat kontratatuzeko administrazio-espedienteari buruzko informazioa.

– «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Giza Eskubideen Batzorde berezia biltzeko deia egitea, ahalik eta lasterren, Juan Carlos Hernando González presorearen heriotzaz jarduteko.

**24a:**

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia, hauxe jakinarazteko: lurzorua eta lanbide kolegioen arlo-etako neurri askatzaileei buruzko 7/1997 Legeko hainbat artikuluren aurkako konstituziokontarakotasun errekurtsioa tramitera onartu dela.

– Gipuzkoako Belauntzako Udalaren idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernando euskal preso politikorearen heriotza dela-eta harturiko erabakia.

**25a:**

– Manuel López Merino jaunaren idazkia, etxebizitzekin eta haien finantzaketarekin zerikusia izan eta Batzordeetan eztabaidatu diren politika edo jarraibideei buruzko informazioa eskatzeko.

**29a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Nafarroako Jaialdien programazio ofizialari eta Tuteran ospakizun batzuetatik at uzteari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: Nafarroako Jaialdien zabalkunde ofizialari eta Tuteran ospakizunen bat egiteari buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, Soladutzaren Ordezko Zerbitzuari buruzkoa.

– “Recursos Humanos y Procesos” enpresaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren giza-baliabideak antolatuzeko lehiaketari buruzko dokumentazioa.

**30a:**

– Gipuzkoako Oresako Udalaren idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernando euskal preso politikorearen heriotza dela-eta harturiko erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Barasoaingo ikastetxe publiko berria eraikitzeko obren kontratu egiteko baimena ematen duen erabakia.

**31a:**

– Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuaren kontratazioari buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Udal eraikinetako liburutegiendako laguntzak” izeneko 14300-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Salestarraren ikastetxearekiko hitzarmena” izeneko 18871-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Helduentzako hezkuntza” izeneko 13171-8 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Udal kontserbatorientzako dirulaguntza” izeneko 12770-2 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Udal musika-eskolendako dirulaguntza” izeneko 12780-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, hurrengo galderaren erantzuna: “Udal kontserbatorio eta musika-eskoletan ikasteko beka eta laguntzak” izeneko 12731-1 aurrekontu-lerroa-

ren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cris-  
tóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin

batera, Navas de Tolosa kaleko 1. zenbakian  
dagoen Probintzia Audientziaren eraikina Nafa-  
rroako Parlamentuari atxikitzeko erabakia.

### **ABUZTUA**

#### **1a:**

– Iruñeko Udalaren idazkia. Harekin batera,  
aipatu Udaleko osoko bilkuraren erabakia, Elkar-  
bizitza Baketsuaren aldeko deklarazioarekin bat  
etorritz.

#### **4a:**

– Usurbilgo (Gipuzkoa) Udalaren idazkia.  
Harekin batera, Juan Carlos Hernandoren heriotza  
dela-eta harturiko erabakia.

– Lizartzako (Gipuzkoa) Udalaren idazkia.  
Harekin batera, Juan Carlos Hernandoren heriotza  
dela-eta harturiko erabakia.

– LKS Consultores enpresaren idazkia. Bertan,  
proposamen bat aurkezten du Nafarroako Parla-  
mentuaren antolaketa aztertzeko.

#### **6a:**

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari  
jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Osasunbidea-  
Nafarroako Osasun Zerbitzuak eginiko larrialdietara-  
rako garraioaren zerbitzurako lehiaketa eta eslei-  
penari buruzko informazioa.

– Leaburu-Txaramako (Gipuzkoa) Udalaren  
idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernandoren  
heriotza dela-eta harturiko erabakia.

– Senideak-en idazkia. Hauxe eskatzen da:  
bilera bat Giza Eskubideen Batzordearekin.

#### **7a:**

– CORH enpresaren idazkia. Bertan, Nafarroa-  
ko Parlamentuko Administrazioako giza baliabide-  
en antolaketari buruzko azterketa bat burutzeko  
proposamen bat aurkezten du.

#### **8a:**

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin bate-  
ra, Parlamentuan maiatzean sartu ziren hainbat  
aurrekontu-aldaketaren legezketasunari buruzko  
txostena.

– Price-Waterhouse Auditores S.A. enpresaren  
idazkia. Harekin batera, Nafarroako Parla-  
mentua-  
ren antolaketari buruzko azterketarako proposa-  
men bat.

#### **11a:**

– Human Management Systems enpresaren  
idazkia. Harekin batera, Nafarroako Parlamentuko

giza baliabideen antolaketari buruzko azterketa  
burutzeko proposamena.

– Consultores Grupo Delta Pamplona, S.L.  
enpresaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako  
Parlamentuko giza baliabideen antolaketari buruz-  
ko azterketa burutzeko proposamena.

– Lezoko (Gipuzkoa) Udalaren idazkia, Juan  
Carlos Hernandoren hilketari buruzkoa.

– Praxis enpresaren idazkia. Harekin batera,  
Nafarroako Parlamentuko giza baliabideen antola-  
ketari buruzko azterketa burutzeko proposamena.

– Francisco Javier Uriz Urzainqui jaunaren  
idazkia. Harekin batera, Nafarroako Parlamentuko  
giza baliabideak antolatzeko bere proposamena.

#### **12a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Haren  
bidez, Iruñean lurzoru publikoa esleitzeko 1997ko  
lehiaketari buruzko informazioa igortzen zaio Par-  
lamentuari.

#### **13a:**

– Manuel Poblete Ruiz (Bilbo) jaunaren idaz-  
kia. Harekin batera, Nafarroako Parlamentuko  
giza baliabideak antolatzeko bere proposamena.

– Yosheba Miren Sainz de la Higuera (Madril)  
jaunaren idazkia, Madrilgo espetxean jasaten ari  
den egoera salatzeko.

#### **14a:**

– Lucía Ciordia Ruiz andrearen eta besteren  
idazkia, 1997ko ekainaren 4ko Mahaiaren Eraba-  
kiaren aurka errekurtsio kontentzioso-administrati-  
boa jartzeko erabakia jakinarazteko.

#### **18a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Cárcar-eko  
zonan obrak egiteko zenbait urteko gastua bai-  
mentzen duena.

#### **19a:**

– Yosheba Miren Sainz de la Higuera jaunaren  
idazkia (Madril), espetxean jasaten ari den egoera  
salatzeko.

#### **21a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin  
batera, 95/97 Foru Dekretua, Zerga Bereziei  
buruzko 20/92 Foru Legea aldatzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Erro Armendáriz jaunak eskaturiko informazioa, Osasun Departamentuak eta Nafarroako Elizaren Unibertsitateak sinaturiko hitzarmenari buruzkoa.

**22a:**

– Oiertzungo Udalaren idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernando euskal preso politikoaren hilketari buruzko Erabakia.

**25a:**

– Elduaingo Udalaren idazkia, Juan Carlos Hernandoren hilketari gaitzesten duen mozioa ziurtatzen duena.

**26a:**

– Ikaztegietak (Gipuzkoa) Udalaren idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernandoren hilketari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Iker Loiti Urzelai jaunaren eta besteren idazkia, Carabanchel-etik (Madril), Carabanchel-eko espetxean jasaten ari diren egoera salatzeke.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak" deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Ingurugiro Hezkuntzarako Programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten Beste Jardueretarako Dirulaguntzak" izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Endekaturiko Eremuen Lehenatzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa" deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeke eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak" deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Naturaguneak babesteko Hitzarmena" deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, "Naturaguneak babesteko Hitzarmena" deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzkoa.

**28a:**

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia, Sarriako ehiza-barrutiaren hesiaren egoerari buruzko informazioa eman dezan ANAT-LANE Elkartearekin lan-bilera bat egiteko eskatzeko.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko idazkia, Ingurugiro Kontseilariak Sarriako ehiza-barrutiaren hesiaren egoerari buruzko informazioa eman dezan haren agerraldia eskatzeko.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera, Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako zonarako Nafarroako Gobernuak dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzkoa.

**29a:**

– Lucía Ciordia Ruiz andrearen idazkia, betegabeko informatika-teknikari postu baten lekualdatze-lehiaketarako onartuen zerrendan sar dezaten eskatzeko.

– Jesús Villanueva Mateo jaunaren idazkia, betegabeko informatika-teknikari postu baten lekualdatze-lehiaketarako onartuen zerrendan sar dezaten eskatzeko.

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat ..... 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---